

...eta Kitto!

2018-XII-4

1079 zkia.

Inoizko jai ahobizienak



Administrador
Fincas
Colegiado



ADMINISTRAZIOA

- ✓ Aurrekontua
- ✓ Kontabilitatea
- ✓ Jabeen batzarretan izatea
- ✓ Aktak egitea




KUDEAKETA

- ✓ Obrak
- ✓ Lizentziak eta laguntzak
 - Eusko Jaurlaritzaz
 - Udala



LEGE AHOLKULARITZA

- ✓ Jabetza horizontala
- ✓ Ezordaindutako enpleguaren erreklamazioa
- ✓ Sormen berriko komunitateen eraikuntza



24 ORDUKO ZERBITZUA
Zure eskura jartzen dugu zure komunitateari dagokion informazio guztia urteko egun guztietako 24 ordutan

KOMUNITATEEN ADMINISTRAZIOA

30 URTEK GORAGOKO ESPERIENTZIAK BERMATZEN GAITU

943 200 358 - www.eukicomunidades.com - ARRETA PERTSONALIZATUA ETA TELEFONOZ: 09-14:00 eta 15:30-19:30

+ osasun gida

Dentistak



arat
Horts Klinika

"Horts osasuneko profesional taldea zure zerbitzura"

T. 943 20 18 51
info@clinicadentalarat.com
www.clinicadentalarat.com
Toribio Etxebarria 4-1, EIBAR

UniverSalud
Mutua, konpainia eta kolektibo handien itundutako zentroa



bista eder
clínica dental · horts klinika

Deitu | 943 70 00 82

bista eder, 19
www.bistaeder.es

Esku onetan egotearen ziurtasuna.
20.000tik gora paziente pozik.
Etorri eta egin irribarre berriz ere.



EIBAR HORTZ KLINIKA
CLÍNICA DENTAL

MAITANE G. IÑIGUEZ

Zerbitzu guztiak klinika berberan

San Agustín, 4 behea ezk. info@eibarclinicadental.com
943 537 076 - 688 884 808 www.eibarclinicadental.com

Pedro Etxebarria Gisasola
DENTISTA

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara
EGUNERO

Calbeton 19 - 3. ezk. Tfnoa: 943 20 72 17



GASTESI
Horts-Klinika

Odontologia orokorra eta prebentziozkoa / PADI
Ortodontzia / Inplanteak / Laser Teknologia

Errebal, 9-1. C 943 70 00 90 / 688 68 96 02



horts-klinika
B. IZAGIRRE
clínica dental

EGUNERO

Untzaga, 5 - 4. Tel. 943 70 23 85



IRAZABAL
clínica dental

Iribarreetan adituak
ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxebarria, 12 - 1. Esk.
Tfnoa. 943 20 85 52
www.clinicairazabal.com

MIGUEL SEMINARIO
ZURIARRAIN ODONTOLOGOA

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Inplanteak

Bidebarrieta, 7 - 1. esk. 943-702896

10 urte zurekin Eibarren

25 prestazio doan zuretzako

VITALDENT
Konpromisoa

San Juan, 7
943 821 885 - 690 628 731
www.vitaldent.com

Dietetika/Nutrizioa



NATUR HOUSE

Ainara Iriondo Ansola
GIZA ELIKADURAN ETA
DIETETIKAN DIPLOMATUA

Toribio Etxebarria, 22
Tel. 943 108 020 Mug. 677 551 850

Errehabilitazioa



CRF AMOSTEGI
ERREHABILITAZIOA

- * Fisioterapia / Errekupeketa funtzionala
- * Min-Unitatea
- * Inkontinentzia urinarioak
- * Kirol medikuntza
- * Ama izeateko prestakuntza

Muzategi 2 (EIBAR) San Ignacio 2 (ELGOIBAR)
Tfnoa. 943 20 34 46 Tfnoa. 943 74 33 74

Estetika klinika



abontza
clínica estética

Dr. J. Ramón Fdez. Ciudad

MEDIKUNTZA
ESTETIKOA

KIRURGIA
ESTETIKOA

Egiguren, 6 - behea 943 206 044

Fisioterapeutak



FISIOTERAPIA
ZENTRUA

ANE MENDIA
970 Kolegiatu zkia.

- INDIBATERAPIA
- KIROL LESIOAK
- DRENAJE LINFATIKOA
- POSTURA ZUZENKETEN TRATAMENDUAK

ARRAQUETA, 20
TEL: 943 53 06 42
ane_mendia@hotmail.com

Ginekologia



GINECOLOGÍA
EIBAR

Dra. Laura Martínez
Dr. Alejandro Recas

Tel: 659 56 13 65
San Juan, 5 - 2. D
dr.recas@gmail.com
dra.martinezgallardolaura@gmail.com
www.ginecologiaeibar.com

Estefanía - GINEKOLOGIA
Abanto - OBSTETRIZIA
- LAGUNDUTAKO UGALKETA

Untzaga, 11 - 1. D 943 70 29 42



Euskara Elkarte

ARGITARATZAILEA:
...eta kitto! Euskara Elkarte.

HELBIDEA:
Urkizu, 11. 20600 Eibar

TELEFONOAK:
943 20 67 76 / 943 20 09 18.

FAXA: 943 20 28 72.

ASTEKARIAREN E-MAILAK:
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK:
elkarta@etakitto.eus /
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:
Ana Aizpurua, Itziar Albizu,
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi
eta Silbia Hernandez

ADMINISTRAZIOA:
Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:
Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA:
Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:
J.L. Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:
Malen Jainaga
eta Malen Illarramendi

HIZKUNTZA ARDURA:
Juan Andres Argoitia
eta Maider Aranberri

PUBLIZITATEA:
Itziar Albizu eta Belen Ulazia

TELEFONOA: 943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA:
Malen Illarramendi

BANAKETA-ARDURA:
Mohammed El Ghabali

TIRADA: 8.150 ale

INPRIMATEGIA:
GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A: ...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA: SS/430/92.
ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)



**Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza
Politika Sailak diruz lagundutako aldizkaria**



**EIBARKO
UDALA**



**GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA**



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETTZA)**

eskutitzak

- Seguru irabazten irten garela ospitale berriarekin? -

Otaola Hiribidean orain gutxi zabalduko subakutuen ospitalea lorpen bikaina moduan saldu badigute ere, ez dakit benetan halako aurrepausua izan den. Aurretik ere tokatu zait, normala denez, beste ospitale batzuetara joan behar izatea eta Eibar Ospitaleak, oraingoz behintzat, ez du besteen antzik. Donostian izan naizenean ere, zelako itxaron-gelak, aparkaleku zabalak... Eibarko honetan, bestalde, aparkalekurik ez, autobus eta tren geltokiak ere urruti (batez ere, ibiltzeko larri bazabiltza,

edo herren), itxarongelak txikiak... Adinean aurrera goazenok lehen baino deserosoago gaude egun, eta arazo gehiagorekin: erdialdean bizi garenori asko zaildu zaigu medikuarengana joatea, lehen ambulategian eskaintzen zizkiguten zerbitzu ugari ospitale berrira pasa dizkigutelako. Gerturatu beharreean, urrutiratu egin dizkigute. Eta, bide batez, sortutako oztopoei ez dizkie konponbiderik jarri, orain arte behintzat.

A. A.

Hurrengo alea abenduaren 14an

Behin zubi luze hau pasatuta, datorren astetik aurrera, eta urtea amaitu arte, normaltasunez kaleratuko da alea, hilaren 14an, 21ean eta 28an.

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

MASPILDU.- Lauskitu, zapaldu. Zerbait beste zerbaiten kontra estutu edo sakatu, indarra eginda edo kolpeka. "Maillukiakin huts eginda hatzamarra maspildu eban". Kolpe barik generua hondatu, azpian hartuta edo larregi estututa. "Gaiñian beste kaja bat ipiñi eta tomate gehixenak maspildu egin dira".

astean esanak

"Giro erdalduna nabari da euskal Zuzenbidean. Euskararen erabilera sustatzea izan bada ere nire erronka nagusia, aitortu behar dut ezinezkoa izan dela: nik ez dut lortu, eta sistemak ere ez. Sistema judizialean euskara ez dago gaur egun presente, ezta pitin bat ere. Badaude epaile euskaldunak, baina jendearan eskaria falta da. Egun, esango nuke gutxiago hitz egiten dela euskaraz epaitegietan orain hogeit urte baino. Orduan abokatuek jotzen zuten gaztelaniara eta herritar askok euskarara, hobe zekitelako edo aldarrikatzeko"

(GARBIÑE BIURRUN, EPAILEA)

"Orain arte, museo, erakusketa eta antzerakoetan beti aurkeztu dizkigute europearro, baita euskaldunoi ere, haitzuloetan, hormak pintatzen eta bisonteen atzetik. Larruazal zuriz eta gaztaina-koloreko ilearekin. Azalaren eta ilearen koloreak dozena bat geneen araberakoa da. Ba azken azterketek diotenez, europear guztiak azal ilunekoak eta ile beltzekoak ziren. Hau da, Ekainen bizi izan zirenek uste duguna baino ilunagoak ziren. Milurte batzuk geroago Afrikatik etorritako guzti horiek aldatzen joan ziren. Hain iluna izatean azalak ez zuen D bitaminarik sortzen eta, gutxika, organismoak bultzatuta, zuritzen joan ginen"

(IÑAKI EGAÑA, HISTORIAGILEA)

"Google eta Facebook-en lan egiten duten gurasoek ez dizkiete euren seme-alabei eurek egindako produktuak erabiltzen lagatzen. Barregarria da. Silicon Valey-ko haurrek ez dute mugikorrik eta, gainera, ez diete lagatzen esertzen pantaila izan dezakeen ezeren aurrean. Hor daude tekno-aita eta tekno-ama guztiak euren seme-alabei esanez: 'Kontuz, ez ikutu, nire enpresak egindakoa da-eta'. 12 urteko nire alabak mugikorra eta ordenagailua ditu, baina sare sozialekin kontuz ibiltzen da. Bada denboratxoa plataforma sozialak egiten dituzten enpresetara joan ginela eta han ezagutu zituenekin ez du nahi sekreturik partekatzea"

(JARON LANIER, ANALISTA DIGITALA)



MARISA CID

Lurra larruazalean

Bizimodu naturala gustoko dugunok, askotan, baserriko bizimodua ideialtzat hartzen dugu. Hemen, Euskal Herrian, edozein lekutara joaten bagara ere, mendiak baserri beteta ikus ditzakegu, denak zelai berdez inguratuta: behi batzuk hemen, artalde bat hor, asto txiki batzuk han. Igande eguzkitsuan paradisuan murgilduta gaudela pentsatzen dugu eta, batzuetan, baserrian bititza gustatuko litzaigukeela amesten dugu. Niri behintzat horrela gertatzen zait.

Baina urtero, azaroaren azken egunean, baserriko bizimodua kalera etortzen zaigu. Aurten, San Andres Azokan, barazkien postu batean, bi emakume gazte zeuden. Barazki beteta zeukaten mahaia; barazki ederrak, freskoak, biologikoak, distiratsuak... Han gelditu eta erosketak egin nituen. Porruak, kalabaza eta borrajaren artean euren eskuak ikusi nituen, bereziak, indartsuak; baserriko eskuak, hain zuzen ere. Esku haiek lurraren indarra transmititu zidaten, lanaren indarra; baserriko bizimoduaren ahotsa ziren, gogorak. Espinaka freskoaren artean, eskuak: hatzazkalak motzak; azala iluna, zimurrez betea, marra guztiak begibistan. Iraganaldia, orainaldia eta etorkizuna ikusteko esku aproposak. Hotza eta beroa sentitzera ohituak. Lurra eskuetan margotuta. Eskuak lur bihurtuta. Lanaren poderioz, eskuek bere freskotasuna barazkiei transmititu zieten. Baina ez pentsa freskurarik gabe itsusiak zirenik, ez! Nahiz eta freskura galdu, haientzat altxor zoragarriena gordetzen zuten: ama lurra zaintzeko arguila.



Andren kontrako indarkerixa salatzen ekimenak

Azaruak 25 Indarkerixa Matxistaren kontrako eguna dala eta, urtero lez aurten be halako egunian alkarrataratzia egin zan Untzagan, "Emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean Eibar martxan" goiburuari jarraituta. Bezperan, barriz, Nalua Eibarko feminista taldiak deittuta mobilizaziñuak egin zittuen arratsaldetik, gabian manifestaziñuarekin amaitzeko.



Domekan ospatu eben urteurren biribilla eibartarrak.

20 urtez ospatu dittue San Andres jaixak Gasteizen

Gasteizen bizi diran eibartarrak domekan ospatu eben San Andres eguna, alkarrekin bazkalduta. Aurten, gaiñera, ospakizunak 20. ediziñua bete dabela eta, Eibarko eta Gasteizko alkatiak gonbidatu dittue. Eibar-Gasteiz

alkartekuen egoitza dan "Toloñon" alkartu eta jarraixan, La Floridako parkerañiño juañ ziran, han taldiaren argazkixa egitteko eta, ondoren, zeozer hartu eta danak alkarrekin bazkalduta eben.

Uniko ikasliak "SEFED Meeting Point" topaketian hartuko dabe parte

Abenduaren 11n, Uni Eibar-Ermua BHI-ko Lanbide Heziketako ikasliak, beste 34 zentrutako ikasliekin batera, Barakaldoko BEC-n egingo dan IX. SEFED Meeting Point dalakuan egoteko aukeria izango dabe. Ikastetxetik adierazi dabenez, "topaketa horren helburua, ikasliak gelatik urten eta, praktika erreal baten bittartez, enpresako benetako esperientzia garatu ahal izatia da".



Amañako zozketako irabazliak jaso dau premixua

Amañako jai batzordiak San Andres egunian egindako zozketan, irabazlia argazkixan (erdixan) ikusten dozuena izan zan. Normala dan moduan, pozarren eruan zittuan oparixa osatzen eben zigala, otarrainska eta arraindegiko beste enparau guztiak. Zorionak eta on egin!

autuan

DISKRIMINAZIÑUARI BURUZKO MINTEGIXA

Abenduaren 12xan, eguaztenian, diskriminaziñuari buruzko mintegixa egingo da liburutegixaren gela polibalentian, 18:00etatik 20:00etara. Mikel Mazkiazaran, Gipuzkoako SOS Arrazakeriako abokatuak egingo dau berba eta honako gaixeri helduko detse: zer da diskriminaziñua eta zelako motak daguazen; gorroto delituaren definiziñua; gorroto delituen datuak eta zelan tratatzen dira; Eraberean Sarea. Diskriminaziñuaren hiru begirada: LGTB, motxailak eta etorkiñena; Esparru konkretu bat: Etxebizitza eta diskriminaziñua; Gipuzkoako SOS Arrazakeriak egindako ikerketaren datuak; eta "Berdin" app. Izen-emotia duan da eta Eibarko Udala-Aniztasun kulturala atalian egin bihar da, 943 70 84 40 telefonora deittuta edo immigrazioa@eibar.eus helbidera idatzitza.

· Eibarren egindako markak
· Moda
· Etxeko osagarriak
· Yoga:
"Yoga + Jarrera-Adimena"
"Jarrera berregokitzea"
· Pilates Essential:
"Lur eta aireko fusioa"
· Urtebetetzak
· Formakuntzak
· Dastatzeak
· Hitzaldiak
· Ekitaldi korporatiboak

Eta askoz gehiago!

hello@helmethouse.es
943 849 310

BLAS ETXEBERRIA 1,
COLISEO ONDOAN!

helmet house
CONCEPT STORE

f @helmethousestore

moments with a story behind

Gabonetako kanpaiña hasi dabe merkatarixak

Aurreko astian Gabonetako argixak ixotzeko Eibarko Bizikleta Plazan egin zan ekitaldixarekin ekin zetsen Gabonetako kanpaiñari herriko dendari eta ostalarixak. Eibar Merkataritza Gune Irekiak sustatuta, eta Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin, datozen astiotarako hainbat jarduera berezi antolatu dittue, “Eibarko kalieri bizittasuna eta koloria emotiaz gain, jendia Eibarko dendetan erostera eta hamengo tabernetan kontsumitzera” animatzeko. Umien artian oso harrera ona izaten daben txiki parka aurten be Astelena frontoian zabalduko dabe, abenduaren 22xan eta, 26tik aurrera, Gabonak pasau arte egunero zabalduko dittu atiak, 11:00etatik 14:00xetara eta 16:30xetatik 20:30xetara. Txiki parkera duan sartzeko txartelak kanpaiñarekin bat egin daben dendetan banatuko dittue, gitxienez 20 euroko erosketa egiten dabenen artian. Horrekin batera, Txaltxa Zelaixan, Urkizun eta anbulatorixoko parkian barrakak ipiñiko dittue eta, horretan musuruk ibiltzeko bonuak be erosketak egitterakuan eskuratzeko aukeria egongo da. Udalak sustatuta martxan dagan “Errebal Bizirik” kanpaiñaren barruan, bestalde, kale animaziñua egongo da abenduaren 15ian eta 22xan. Eta aurten be 40 euro ordainduta 50 euro gastatzeko aukeria emoten daben bonuak ipiñi dittue salgai.



Auirreko asteko martitzenian piztu zittuen kaleko argixak. **Silbia**

Atzo hasi ziran eta interesa dakanak EMGIren bulegora jua bihar ko dau (Untzaga, 7) erostera. Eta Gabonen inguruko promozioñuekin amaitzeko, Eibarko Dendarien Elkarteak 40 lote oparituko dittu, zeozer erosi eta alkarteko txartelarekin ordaintzen daben bezeruen artian. Gabonetako kanpaiñan 100.000 eurotik gora erabilliko dittue orotara. Kalia apaintzeko argixetarako aurrekontua, bestalde, 45.000 eurokoa da: “24.800 euro Eibarko Udalak ordainduko dittu eta gainontzekua Eusko Jaurlaritzak”.

Emakumien Etxien gaiñeko Jardunaldixa egingo da hillaren 12xan

Hainbat tokitako Emakumien Etxietako esperientzien barri emon eta alkartrukatzeko, abenduaren 12rako egun osoko jardunaldixa antolatu dabe Eibarren, Portalean. Goizian, 10:30xetatik 13:00era “Esperientzia Mahaixa” egingo dabe, gonbidatu ezberdiñekin: Zaragozako Emakumien Etxeko Ana Gaspar (Berdintasun Zerbitzuko arduraduna) eta Amelia Ariño (tratu

txarrak jasan dittuen emakumien babes-etxeko zuzendarixa); Basauriko Marienea Emakumien Etxeko Anabel Sanz del Pozo (Berdintasun Arloko teknikarixa) eta Conchi Gomez Mahave (Marienea alkarteko kidea); eta Donostiako Emakumien Etxeko Laida Arrieta Cristobal (Berdintasun Arloko teknikarixa) eta Su Hernandez (Emakumeen Etxeko alkarteko kidea). Ho-



rrekin batera, Andretxearen inguruko hausnarketarako dinamika bat egingo dabe, arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara. “Andretxea elkarrekin (bir)pentzatzeko dugu?” izenburuko dinamikan parte hartzeko alde aurretik izena emotia eskatzen dabe, zuzenian Andretxean (Zezenbide, 9 behe), 943 70 08 28 telefonuan edo andretxea@eibar.eus helbidian.

35. urteurrena ospatzeko ekitaldixa egin eban Urkotronikek

Aurten 35 urte bete dittu Urkotronik enpresak eta, hori ospatzeko, oin dala egun batzuk ekitaldi berezixa egin eban Coliseo antzokixan, 400 bat gonbidaturekin. Lagun eta bezero mordua alkartu ziran urteurren jaixan, tartian Josu Zubiaga Segurutasun sailburuordia, Aitor Uriarte Eusko Jaurlaritzako joku zuzendarixa eta Alex Arriola SPRI-ren zuzendarix nagusixa. Eta Julian lantzik aurkeztu zittuan 35. urteurrenaren harira antolatutako Urkotronik Vending Lehiaketako irabazliak: Jaikiberri taldeko kidiak.



Ekitaldixan parte hartu zebenetako batzuk; guztira 400 bat gonbidatu izan zan bertan.



81 urteko eibartarrak sasoi betian ospatu eben euren jaixa

Argazkixan ikusten dozuen taldeko andra-gizonak 1937xan jaixotakuak dira eta, azaruaren 27xan Untzagan alkartu ziran, hamabigarren urtez jarraixan, euren jaixa ospatzeko. Bakotxari bere zapixa banatu eta jantzi ondoren, taldiaren argazkixa egin eta Peña Txinberara jua ziran, piskolabisa hartzera. Txikiteuan ibilli eta gero, Unzaga Plaza hotelian bazkaldu eben eta, datorren urtera arte agurtu baiño lehen, dantzarako aukeria be euki eben.

EH Bilduren zerrendaburua eta zerrendia aukeratzeko prozesua abiatu dabe

Arautegi barrixa oiñarri, hauteskundietara begira zerrenda osua aukeratzeko bidiak zabaldu dittu EH Bilduk. Hortaz, EH Bilduko oiñarriak zerrendaburua eta gaiñontzeko zerrendarako proposamenak egitteko aukeria izango dabe. Asmo horrekin, Hauteskunde Batzordea sortu barri da Eibarren eta oiñarriekin billerak egingo dittue, proposamen zihetzak jasotzeko. Prozesua amaitzerakuan, botaziñua egingo dabe, erabagixa berresteko asmuarekin. Aurreikusitta daguan egutegixaren arabera, zerrendaburua otsaillerako aukerata egongo da eta gaiñontzeko zerrendakidiak, barriz, martxorako. EH Bildukuen berbetan, "prozesu osua ahalik eta argixena izatia nahi dogu, herritar guztiak izango dittue atiak zabalik parte hartzeko, informaziñua eskuratzeko, pertsonak proposatzeko...". Gogoratu dabenez, martitzeno billera irekixak egitten dittue, 17:30xetan Bilgunean eta, bestela, 943708428 telefonora deittuta edo bildu@eibar.eus helbidera idatzitta kontaktuan ipintzeko aukeria dago.



Ederto ibilli ziran Kolonbiako zaporria euki eban taillarrian

Aurreko martitzenan egin eben hille birik behin ...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik izaten dan Munduko Janarixen Taillarra. Saiuan Kolonbiako janarixarekin gozatze-ko aukera aparta euki eben. Zihetzago esateko, banana frijituak eta arepak gaztaiarekin preparau eta jan zittuen. Taillarrian Berbetan egitasmoko kidiak ez eze, euskeria praktika-

tzen daben bittartian munduko sukaldaritzza probatzera animau ziran beste hainbatek hartu eben parte. Hurrengo saiua urtarillaren amaieran izango da eta antolatzailliak jendia parte hartzera animau nahi dabe, ekimenian parte hartzia duan da eta. Izena emateko edo informaziñua eskatzeko ...eta kitto!-ra jua edo deittu (943200918) leike.

Zaharren egoitzetako bihargiñak greban

Aurreko astian bost egunez greban egon ziran Gipuzkoako zaharren egoitzetako bihargiñak eta horren harira konzentraziñua egin eben Untzagan. ELA sindikatutik adierazi dabenez, lanuztiak "oso jarraipen ona izaten ari dira, kontutan hartuta Jaurlaritzak %70ko zerbitzu minimuak ezarri dittuala eta, beraz, askok ezin dabela grebarik egin". Diñue-
nez, "sektoreko hitzarmenaren

negoziaziañuak bere horretan jarraitzen dau. ELA sindikatutik patronalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren jarrera salatu nahi dittugu. ADEGI, GAREN, LARES eta MATIA 2020 patronalak 2017. eta 2018. urtietarako soldatak izoztia planteatzen segitzen dabe eta ez dabe negoziaziñuan iñolako pausorik emoten. Eta Diputaziñua, arduradun zuzena izanda be, ez da posizionatzen".



Berbetaneko kidiak ez eze, beste eibartar batzuk be animau ziran.

Apirilean zabaldu zituen ateak Bidebarrieta kalean dagoen Baratzte Gourmet tabernak eta dagoeneko hainbat sari eskegi dituzte bere hormetan. Azken hiru asteak zoragarriak izan dira tabernarentzat. Bacalaos Alkorta Eibarko Hiria II. Pintxo Txapelketan finala jokatu zuen eta sari bi eskuratu zituen, pintxo onenaren sari nagusia eta bertako produktuekin egindako pintxo onenarena. Unai Altuna sukaldariaren eskuetatik irten diren pintxoak dira, baina bere lankideekin partekatu nahi du azken asteotako arrakasta.

UNAI ALTUNA (Baratzte Gourmet): “Produktu ona badaukazu, ez duzu bestelako apaingarririk behar”

- Aste zoragarriak izan dira azken hauek zuentzat, ezta?

Ez genuen espero hiruraste hauetan horrelako gauzarik gertatzea. Zortzi hilabete dararama zabalik Baratzte Gourmetek eta hilabete gogorrak izan dira. Horrelako esker ona jasotzea oso pozgarria da edozein negozio aurrera atera nahi duenarentzat, baina batez ere hasten dabilen negozio batentzat.

- Sari hauek jasotzearen eragina nabari izan duzue jada?

Bai, jende gehiago etorri da gugana. Sanandresetako Pintxo Lehiaketa martxan zegoen bitartean ere mugimendu gehiago nabari zen. Horrelako lehiaketak egitea oso positiboa da Eibarko ostalaritzarentzat. Parte hartzea bakarrik oso ona da, baina irabazten baduzu, askoz hobeto. Irabazteko zortea behar da. Aurten irabazi dut, baina datorren urtean auskalo. Nik berdin jarraitu behar dut lan egiten, ezin dugu pentsatu aurten irabazi dugulako dena eginda dagoela. Irabazteak indarra ematen dizu gogo gehiagorekin jarraitzeko, baina egunak normal pasatzen


dira. Pozik gaude jende gehiago hurbildu delako gure kontzeptua ezagutzera.

- Zein da zuen kontzeptua?

Nahiko erraza da. Batetik, etxera eramateko jatekoa egiten dugu; eta bestetik, tabernako barran pintxoak jateko edo etxera eraman ahal dena hemen jateko aukera ere ematen dugu. Pintxo bereziak egitea da gure asmoa eta horretan gabiltza.

- Bertako produktuekin egindako pintxo onenaren saria jaso zenuten Sanandresetako lehiaketan. Bertako produktuak erabiltzea aldarrikatzen duzue tabernan ere?

Produktuak ahalik eta hurbilen erosten ahalegintzen gara, baina zerbait ez badugu aurkitzen, kanpora jotzen dugu. Produktu ona erabiltzen baduzu, ez duzu osagai ezberdinak behar. Polita da gauza ezberdinak egitea, bestela automata bezala lan egiten duzulako eta sukaldean nire ustez ez delako komeni horrela lan egitea, bai-



na esku artean produktu ona badaukazu, ez duzu bestelako apaingarririk behar.

- Bakailao Lehiaketaren finalean zuzenean kozinatu zenuten. Nolako esperientzia izan zen?

Lehendabiziko aldian izan zen niretzat eta urduri negoen. Parte-hartzaileen artean lagundu ginen eta esperientzia handiko lehiakideak izan nituen. Asko ikasi nuen eurek egiten zutena ikusten, baina gero elkarrekin bazkaltzera joan ginean konturatu nintzen denok antzeko arazoak ditugula ostalaritzaren munduan. Oso esperientzia positiboa izan zen.

- Nola diseinatzen da pintxo bat?

Ez genuen denbora askorik eduki, 2-3 aste bakarrik. Lehenik osagai nagusia zein izango

den pentsatu behar duzu; adibidez, bakailaoa Bakailao Pintxo Lehiaketan. Gero, piperra sartu nahi nuen bigarren osagai moduan. Bakailaoa bi modutan jarri nahi nuen, konfitatua eta eskabetxean, eta hiru koloretako piperrak erabili nituen. Lasagna antzeko bat egin nuen, bakailao konfitatua-rekin barruan (eta ogiarekin, pixkat lehortzeko), eta gainean aliolia jarri nuen ezti ukitu batekin. Sanandresetako pintxoak bakailaoa erabili nuen baita ere, baina oraingoan Beasaingo odolkiarekin, piperra eta pikilo saltsa duen pipeta batekin, sagar kolpetxo batekin eta maionesa pikante pixkatekin. Bestetik, pintxoak egiteko orduan gure tamaina kontuan izan behar dugu. Txikiak gara eta guretzat ez da bideragarria elaborazio handi bat egitea. Produktua bikain lantzea berebizikoa da, baina egiteko erraza izan behar da.

“Pintxo bereziak egitea da gure asmoa”



Gipuzkoa, Araba eta Bizkaian Larrialdietako Koordinazio Zentro bana dago baina, azken hilabeteotan langileek salatu dutenez, toki batean zentralizatu nahi dute zerbitzua, Bilboko Txurdinaga auzoan dagoen zentroan hain zuzen ere. Eusko Jaurlaritzak ez du zurrumurrua ukatu, baina ezta onartu ere. Langileen egonezinaren aurrean, Osasun Sailak azterketa zorrotza egin dezan eskatu du Legebiltzarrak eta prozesua gelditu egin da, baina langileek borrokan jarraituko dutela adierazi dute.

Larrialdi zerbitzuen SOS deia

Euskal Autonomia Erkidegoan larrialdiak eta pre-miazko osasun laguntza koordinatzeko ardura duen erakundea da Emergentziak, eta Osakidetzaaren ardurapean dago. Erakunde Sanitario Integralak (ESI) iristen ez diren leku eta orduetan asistentzia sanitario urgentea eskaintzen duen zerbitzua da, 24 orduz 365 egunetan, eta neurri handi batean telefonoz egiten da (2017an 400.000 dei jaso ziren EAEn eta horietatik %33 inguru telefonoz konpondu ziren) hiriburuetan dauden Koordinazio Zentroen bitartez.

Konfirmazio ofizialik jaso ez badute ere, Larrialdietako Koordinazio Zentroetako langileak kezkatuta daude zentro guztiak toki bakarrean biltzearen aukeraren aurrean. Isabel Pedrera eibartarrak adierazi digunez, adibidez, "gure nagusiak zerbait komentatu zigun, baina dena erabakita zegoenean eta, bestela, sindikatuen eta prentsaren bitartez izan dugu toki aldaketaren berri".

Pedrera Arabako Koordinazio Zentroan egiten du lan eta, langile gehienek bezala, kezka bikoitza dauka. "Batetik, es-

kaintzen dugun zerbitzuaren kalitatea okertu egingo da; eta bestetik, langile askok uko egin beharko dio lanpostuari, denontzat ez delako bideragarria Txurdinagara joatea lan egitera". Hasieran, behintzat, horrela izango da Pedreraren iritziz. "Administrazioak dio gaur egungo programekin ez dela aldaketa nabarituriko eta ez



Bilboko Txurdinaga auzoan bildu nahi dituzte koordinazio zentro guztiak.

dela arazorik egongo, baina ez da egia. Gunea ez baduzu ezagutzen, ez dakizu zer bidali larrialdi bakoitzean, eta langile berri asko sartzen bada, hasiera batean behintzat aldaketa nabarituriko da nahitanahiez".

Zerbitzuaren kalitatearen mu-

rrizketari dagokionez, probintzia bakoitzean Koordinazio Zentro bana egotearen abantailak aldarrikatzen dituzte langileek. Zentro batek ezin badu asistentzia eman, beste herrialde bateko zentroak bete dezake lan hori; herrialdea ondo ezagutuz gero, larrialdia gertatu den tokira saizoz iristeko aukera gehiago dago; eta urteetan ehundako sa-

rearen bitartez, zentroetako langileek pazienteetako asko ondo ezagutzen dituzte eta euren deien aurrean hobeago erantzuten dute. Azken finean hurbiltasuna, enpatia eta ezagutza galduko litzatekela diote, hau da, giza-faktorea.

Txurdinagako obrak aurrera

Urrian dimisioa aurkeztu zuten Txema Unanue Osakidetzaiko Larrialdietako zuzendariak, zentro guztiak toki berean batzeko planteamenduen aurka agertu ondoren. Beraz, nahiz eta Legebiltzarraren proposamenez behintzat Osasun Sailak gai horren inguruan azterketa zorrotza lantzea onartu, langileek uste dute planak aurrera jarraituko duela berdin. "Txurdinagako zentroan obrak egiten jarraitzen dute eta baliteke orain, guk zarata egin eta gero, egoera pixka bat lasaitu nahi izatea, baina hauteskundeak pasatu eta gero aurrera jarraituko dutelakoan gaude", esan digu Pedrerak.

Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko zentroetako langileek borrokan jarraituko dute, arazoa gizarteratzen eta horren berri ematen. "Bizkaiko langileak harrিতa daude, dagoeneko baldintza eskasetan lan egiten dituzte tokirik txikirekin eta zaratarekin. Beraz, beste 80 langile hara joanez gero, ez dakit zer gertatu daitekeen". Laguntza seinalea botata dago.



Isabel Tavarte eta Roberto Reñon txapeldun XXVI. BAKAILAO TXAPELKETAN

Azaroaren 25ean jokatu zen XXVI. Bakailao Txapelketa "San Andres Saria" Untzagako karpan. 36 bikoteek jardun zuten bakailaoa pil-pil eran prestatzen. Epaimahaiak prestatutako guztiak probatu eta gero, saridunak honakoak izan ziren: txapela Isabel Tavarte eta Roberto Reñon Urkiko jai batzordeko kideentzat. Bigarren saria Teresita Iriondo eta Miren Ibarbiak jaso zuten eta hirugarrena Muskerrak II taldeko Jose Angel Puente eta Jon Peñak.

EIBARKO BAKILLAUAREN KOFRADIXAKO ohorezko hiru kide berri izendatu dituzte

Kofradixiak XXV. Kapituluak ospatu zuen azaroaren 25ean. Eguna Ipur sagardotegian hasi zuten, kanpotik etorritako beste kofradietako kideei ongietorria eginez. Gero, trikitilariak lagunduta, Portaleraino kalejiran joan ziren, ohorezko kideak izendatzeko ekitaldiari ekiteko. Aurtengo omenduak Mateo Guilabert, Pedro Iriondo eta Koro Alonso izan dira eta, jakina, urteroko ohiturari jarraituta kofrade berriek bakailaoari fidelotasuna zin egin zioten.



TXISTORRA EGUNEKO zozketako sariak

Eibarko Txirindularien Elkarteak jaso daitezke
Eibarko Txirindularien Elkarteak antolatutako XVI. Txistorra Eguna primeran joan zen. Azaroaren 24ko zapatu horretan martxa betean ibili ziren txistorra pintxoak ez ezik, gauean egin zen zozketarako errifak saltzen. Zozketan saritutako zenbakiak www.clubciclistaeibarres.org helbidean begiratzeko aukera dago. Sariak Pagaegi 3an jaso daitezke, 19:00etatik 20:00etara, eta gaur eta bihar dira azken egunak. Erretserba izatea suertatuz gero, antolatzaileekin jarri kontaktuan: cce@clubciclistaeibarres.org

Baratza Gourmetek irabazi du XV. EIBARKO PINTXO LEHIAKETA

Ruben Etxaniz, Unai Magunazelaia eta Josu Gimenezek osatu zuten Arrate Kultur Elkartearen eskutik egin den XV. Eibarko Pintxo Lehiaketaren San Andres Sariaren irabazleak aukeratzeko epaimahaiak. Pintxo Onenaren Sari biak (onena eta bertako produktuekin egindako onena) Baratze Gourmet-ek bereganatu zituen. Aipamen bereziak Laubide (zaporeen konbinazioagatik) eta Hirurok-entzat (ez ohiko proposamenak). Publikoaren Saria, bestalde, Hirurok-entzat izan zen.



SAN ANDRES BERTSO JAIALDIA arrakastatsua izan zen aurten ere

Azaroaren 25ean ...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik Portalean egin zen San Andres Bertso Jaialdia biribila izan zen. Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Unai Mendizabal eta Alaia Martinek bota zituzten bertsoekin ederto gozatu zuten. Saioa hasi aurretik bertso-paper lehiaketako sariak banatu zituzten. Nagusien mailan Jesus Mari Gisolak "Trunboi"-ren "Maitasunez Mutu"-k irabazi zuen, Hernaniko Iñigo Legorburu bigarren izan zen. 16 urtetik beherakoen artean, lehen saria Peru Alberdik eraman zuen, "Bertso Eskola" bertsoekin; eta bigarrena Ane Ariznabarreta izan zen.



Aurreko asteko eguaztenean udaletxean egin zen Slow Food mugimenduaren jardunaldian Aitor Buendia kazetariak esan bezala, "Andoni Luis Adurizek ez du aurkezpenik behar". Gure garaian eragin handien duen sukaldarietako bat da donostiarra eta zeresana ematen du Michelin izar bi dituen Mugaritz jatetxetik. Ekitaldian esan zuenez, 15 urte daramatza Slow Food mugimenduari atxikita eta sukaldaritzarekiko pasioa transmititu zuen igorri zuen berba bakoitzean.

ANDONI LUIS ADURIZ (sukaldaria):

"Mundua aldatzea gure ahoan dago"



- Hitzaldian aipatu duzunez orain dela 15 urte egin zenuen bat Slow Food mugimendurekin. Zergatik eman zenuen pauso hori?

15 urte edo gehiago! Slow Food ekimena ezagutzen nuen, baina Sandro Pertini Slow Food mugimenduaren sortzailea ezagutzeko zortea izan nuelako egin nuen bat batez ere. Inoren ahotik inoiz entzundako ideia eta kontzeptuak entzun nituen bere ahotik, eta aparteko iraultza iruditu zitzaidan. Munduaren errealitatean demaseko inpaktua eragiteko gaitasuna duen erreboluzioa dela esango nuke. Tokian tokiko kulturak babesteko balio duen mugimendua da, oso integratzailea zentzu horretan. Gazta edo kipula mota bat hiri baten erdian dagoen eraikuntza bat defendatzea bezain garrantzitsua dela entzun nion Pertiniri, hori ulertzen genuenean mundua aldatu egin-

go zela argudiatuz. Oso zuzen eta erraz ulertzen den zerbait da, eta zentzuzkoa da gainera. Beraz, mugimendua babestu behar nuela iruditu zitzaidan.

- Norbanako moduan egin zenuen bat mugimendurekin edo baita sukaldari moduan ere?

Paradoxa berba giza-baldintzei oso lotuta dago, eta baita elikaduraren eremuari ere. Baten batek mundua hobera azkar aldatzea nahi badu, ez du ulertzen arazo askori egin beharko diela aurre. Norberak norberaren aurka egin beharreko egoerak, erabakiak hartzeko momentuak... eta erabaki horiek batzuetan oso apurtzaileak izango dira zuk defendatu nahi duzun ideologiarekiko. Hor aurkitzen ditugu dezepzio handienak. Ardoaren adibidea jarriko dut. 60. hamarkadara arte kultura orokorrak hiru ardo mota onartzen zituen (zuria, beltza eta gorria),

baina gaur egun demaseko aberastasuna eta ñabardura maila dago mahasgintzan. Esportatu eta mugitzen den produktua delako heldu gara kalitate maila bikain, magiko eta bakar hauetara. Hau da, inork ez delako pentsa Borgoinako ardoa, daukan fin-tasunarekin, Borgoinan bakarrik kontsumitzen denik. Produktu batzuk ez daude bertako merkatuentzat eginak eta, kasu batzuetan, horrela izan dadin behartu behar da. Adibidez, hemen ekoizten ez delako kafea kontsumituko ez bagenu, sostengaezina izango litzateke. Mundu osoko milaka familia miseria absolutuan utziko genituzke. Gurea babestearekin elkarbizi behar da errealitate hau. Jendeak ideia hau ulertu behar du: ezin dugula utzi balio erantsia ez dakartzaten produktuek koloniza gaitzate-la. Eta, baita ere, ez ditzatela ekarri gure inguruko produktuei eskatzen dizkiegun atributuak. Zenbat urte daramatzagu bakaila-oa jaten? Bakaila-oa ez da hemen arrantzatzen, baina oso gurea den produktua da. Txokolatea jatea ere oso naturalizatu daukagu eta hemen ez dago txokolaterik. Paradoxak dira, ez dutelako gurekin zerikusirik, baina oso hurbil sentitzen ditugu eta gure egin ditugu.

"Ahora mokadu bat eramaten dugun bakoitzean, errealitate mokadu bat izaten da"



Urkizu Eskolakoek Aduriz agurtzeko aukera izan zuten. Ekhi Belar

“Munduaren errealitatean demaseko inpaktua eragiteko gaitasuna duen erreboluzioa da Slow Food-a”

- **Abangoardiako sukaldaritzaren ikurra zara. Slow Food-a abangoardiakoa izan daiteke?**

Sukaldaritzaren mota ezberdinak ‘sukaldaritzaren ona’ eta ‘sukaldaritzaren txarra’ terminoetan banatu behar dira. Hau da, niri berdin zait kultura bati lotutako sukaldaritzaren (Cadizekoa, Napolikoa, Euskal Herrikoa...), produktu-sukaldaritzaren (atuna bakarrik ematen duen jatetxea, adibidez) edo teknika-sukaldaritzaren (frijituak, erreak...), axola zaidan gauza bakarra da ondo edo txarto egina dagoela. Sormeneko sukaldaritzak sukaldaritzaren tradizionala kaltetzen duela esaten duen eztabaidak ez dauka zentzurik. Gauza kezkarriagoak eztabaidatzeko balio duen ke-lainoa besterik ez da.

- **Sukaldariak sukaldaritzaren haratago eragiten duzue gizartearen. Nolabaiteko erantzunkizuna sentitzen duzue zentzu horretan?**

Sukaldariak, azken finean, sukaldariak gara, baina egia da ikusgarritasuna eta erantzunkizuna lotuta doazela. Edozein gauzatarik jende askok esaten duzuna entzuteko gaitasuna duen pertsona bazara, aukera hori aprobetxatu beharko zenuke bizi dugun errealitatean eragina izaten saiatzeko eta eremu hobea batera eramateko. Turkian badago gazta modu berezi ba-



Alberto Albistegi, Andoni Luis Aduriz, Aitor Buendía eta Alberto Lopez de Ipiña egueneko ekitaldian. E.B.

tean botatzen duelako Instagramen ia 18 milioi jarraitzaile dituen sukaldari bat, Nusret Gökçe (Salt Bae). Ba inoiz ez didazu entzungo ezer txarrik Gökçeren gainean (zogarria iruditzen zait gainera), baina egin beharko genukeena da berarekin berba egin eta moduren baten bera konbentzitu bere bitartez ahotsa ez dutenei ahotsa emateko. Izan daiteke Gökçek aukera hori inoiz pentsatu izana, baliteke prest ez egotea baita ere, baina aukera hori dauka eta pentsatzen dut ezin duela aukera galdu.

- **Jateko moduak edo zer jaten dugun aukeratzeko mundua aldatu dezake?**

Erabat! Ahora mokadu bat eramatean dugun bakoitzean, errealitate mokadu bat izaten da. Zer jan erabakitzen duzunean ekoizpen eredu ezberdinen artean, nor bizi den eta nor hiltzen den, eta etorkizunean zer mantenduko den eta zer desagertuko den erabakitzen duzue; eta gainera, kalitate edo printzipio batzuen aldeko apostua egin duzue, eta herrialde batean

(Brasil, Kolonbia...) kafea ekoizten jarraitzea laguntzen duzue edo ez, adibidez. Gauza bat jatea eta bestea ez jatea erabakitzen baduzue, demaseko inpaktua daukazu munduaren errealitatean. Gainera, egon daitekeen ariketa demokratikoena izan daiteke, munduaren errealitatean eragin gutxi daukagula pentsatzen dugun pertsona guztien baturak demaseko aldaketak sortu ditzakelako. Adibidez, ekoiztu ahal izateko ur kantitate ikaragarriak alferrik galtzen dituzten produktuak, edo produktu bat lortzeko ekosistemak kaltetzen dituzten arrantzatze moduak behar dituzten jakiak kontsumitzeari uzten badiegu, ziur nago mundua aldatu egingo dela. Elikagaien industria gizartearen sentsibilizazioari adi egoten da eta gizarteak markatzen dion bidetik aldatzen joango da.

- **Mundua aldatzea gure esku dago orduan?**

Gure ahoan dago, pentsatzen duguna baino gehiago.

2.000 euroko Gabonetako OTARRA



Erosteko azken aukera: asteburu honetan

7an (19:00-21:00), 8an (13:00-14:00), 9an (11:00-12:30)

SALMENTA LEKUAK:

El Corte Ingles, Isasi okindegia, Mujika eta Otegui harategiak, Echetto eta Arriola prentsa, Maria Ospitxal (Calbeton), Bolintxo, AEK eta Udal Euskaltegia, Kultu, Izadi loradenda eta ...eta kitto!



Funeraria-Ehortzetxe Mugica

<p>EIBAR</p> <p>Beilatokia Funeuskadi Eibar: Otaola, 27</p>	<p>ELGOIBAR</p> <p>Beilatokia: SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p>
<p>Bulegoa Eibarko erdialdean</p> <p>24 orduko zerbitzu iraunkorra</p> <p>943 20 19 51 www.funeuskadi.com</p>	
<p>Euskadiko Lehen Ehortze Taldea</p>	

Bihar hasi eta domekara arte luzatuko da 53. Durangoko Azoka. Bost egun horietan 10:30ean zabalduko ditu ateak "DA! asko dira" lelopean egingo den Azokak eta 20:00etan itxiko. Aurtengo Azokako aurrekontua 659.912 eurokoa izango da eta 158 argitaletxe, diskoetxe, kultur elkarte, erakunde eta banatzailek parte hartuko dute. Landako gunean 247 stand egongo dira eta horietan 439 nobedade aurkitu ahal izango ditugu: 304 liburu, 93 disko, 18 aldizkari, argitalpen elektroniko bat eta 23 bestelakoak. Autoekoizleen plaza ere izango da bosgarren urtez, eta 17 autoekoizle egongo dira bertan.



53. Durangoko Azoka bizi daiteke bihartik domekara

Azoka bizitzeko modu asko dago. Izan ere, batzuk sortuz eta besteak hartuz. Bertan aurkitu, ikusi, entzun, ikutu eta sentituko ditugu azken asteetan aurkeztutako diskoak, liburuak, ikus-entzunezkoak, kontzertuak eta emanaldiak. Sortzaile berriei begira, Azokak ildo berria abiatu du aurten: **Durangoko Azokako Sormen Beka**. Euskarazko kultur produktu baten sorkuntza, hasieratik amaierara garatzen lagunduko du, hasi ideiatik eta bere zabalkundera arte; urtero emango duten beka horren edizio honetako gaia literatura da. Abenduaren 6an emango dute irabazlearen berri eta 2019ko Durangoko Azokara arte itxaron beharko dugu sormen bekaren lehenengo emaitzaz gozatzeko.

Abenduaren 5etik 9ra arte ere kontzertuak egongo dira egunero **PLATERUENAN**. Landako eta gainontzeko guneetako ateak itxi ostean, azokazaleek kulturaz eta giroaz gozatzeko aukera izango dute Kafe Antzokian. Aurten Plateruenak izen handiko bost kontzertu proposatu ditu: Huntza, Esne Beltza, Modus Operandi, Anestesia eta Olatz Salvador, orden horretan. Kon-

tzertu guztiak gaueko 23:00etan hasiko dira, azkena -Olatz Salvadorrena- kenduta, hori 20:00etatik aurrera egingo baita. Huntzak eta Esne Beltzak euren disko berriak aurkeztuko dituzte. Modus Operandi talde berria bada ere, taldekideak ibilbide luzeak dira: Iñaki Ortiz de Villalba Betagarri taldeko abeslariak Lauroba eta Vendetta taldeetako musikariak batu ditu. 25 urte betetzen dira Anestesiak *Gorrotoren ahotza* diskoa grabatu zuenetik, eta urtemuga ospatzeko biniloa argitaratuko du talde zarauztarrak, jatorrizko diskoaren hainbat moldaketekin. Eta Olatz Salvadorrek *Zintzilik* bere lehenengo disko arrakastatsua aurkeztuko du, sarrera debalde.



Huntzak bihar bertan joko du, lehen kontzertuan.

AHOTSENEAK ez du etenaldirik izango abenduaren 5etik 9ra bitartean. 11:00etatik 20:00ak arteko ordutegian, solasaldien gunean eta zuzenekoan karpan 200 sortzaile baino gehiago elkartuko dira, 70 kontzertu eta 42 solasaldi eskaintzeko. Solasaldien gunean (Landako barruan) euskal literaturaren erreferenteak gertutik ezagutzeko aukera izango dugu eta idazle askok euren azken nobedadeen berri emango dute: Alaine Agirre, Harkaitz Cano, Katixa Agirre, Gotzon Barandiaran, Pako Aristi, Idurre Eskisabel, Edorta Jimenez, Iban Zaldúa, Unai Iturriaga, Jasone Osoro, Jon Arretxe, Oier Guillan, Jakoba Errekondo, Ane Labaka, Joseba Tapia eta abar. Komikigintzak eta bertsolaritzak ere euren tartea izango dute solasaldien gunean.

Zuzenekoan karpari dagokionez, 70 musikari eta musika talde igoko dira eszenatoki bietara: Gatibu, Txapelpunk, Hesian, Izaki Gardenak, Nogen, Iker Lauroba, Egurra eta kitto, Skasti, Larregi edo Leihotikan... Hainbat musikaririk ere euren proiektu berria aurkeztuko dute Ahotsenean: Hezurbeltzak (Jon Maia eta Gorka Hermosa), Era Batera (Gatibuko Gaizka Salazar eta Mikel Caballero), Ken Zazpiko Be-

ñat Serna eta Willis Drummondoko Jurgi Ekiza) eta Xabi Bandini (Kerobia taldeko abeslaria). Talde ezagunetz gain, euren lehenengo diskoa kaleratzen duten taldeak ere egongo dira Ahotsenean: Azalera, Zizel, Polybius, Txost, Rolan Garces, Madidi, Antton Larrandaburu eta bitxiloreak, besteak beste. Egitarau osoa Ahotsenearen webgunean kontsulta daiteke.



Egunero 10:30ean zabalduko dituzte Azokaren ateak, handik bederatzirdu eta erdira, 20:00etan, itxeko. Aurten 53. edizioaren aurrekontua ia 660.000 eurokoa izango da.

IRUDIENEAN, bere aldetik, "DemaS.A" euskarazko film laburren final handia antolatuko da. Euskal Herrian antolatzen diren ikus-entzunezko rallyak abiapuntu hartuta, lehenengo aldiz euskarazko ikus-entzunezko rallyen arteko txapelketa antolatu du Irudieneak, abenduaren 9an, Durangoko Azokako azken egunean. Finalisten final handi horren izena DemaS.A izango da, sortzaile amateurren arteko dema. Aurrez aurkeztutako lehiaketan finalera heldutakoak izango dira bertan, lehiaketa bakoitzeko bi film onenak sailkatuko baitira. Final hori Euskal Herri mailakoa izango da: euskarazko film laburren lehiaketa guztietako finalisten arteko finala. Hiru sari banatuko dira: 24 ordu baino gutxiagoan sortutako laburmetraiarentzat, 24-48 ordu tartean sorturikoentzat eta publikoaren saria, bakoitza 300 eurokoa.

Hilaren 5etik 9ra arte, hor ere egunero, **SAGUGANBARAN** haur eta familientzako hamaika proposamen egongo dira: aurkezpenak, ikuskizunak, tailerrak... Bost egunez, familiek egitarau potoloa izango dute



txiki eta handien plazan. Eta azken egunean ez da aspertzeko astirik egongo. Goizeko 11:00etatik hasita, ipuin kontalariren maratonia egongo da, hainbat ipuin kontalariren eskutik eta honako egitarauari jarraituz: 11.00etan, Lur Korta eta "Aurorita beti polita"; 12.00etan, Dorleta Kortazar eta "Heldu eskutik"; 13.00etan, Maite Franko eta "Jateko moduko ipuinak"; 16.00etan, Mireia Delgado eta "Maletatik irtendako ipuinak"; eta 17.00etan, Aitor Martinez Vinagret eta "Kokitoren amona". Azkenik, eguna borobiltzeko, 18:00etan orri markatzaileak egiteko tailerra egingo dute.



Gatibu zuzeneko karpan izango da Ahotseneak eskainiko dituen 70 aukeren artean.



Abbadia saria jaso berri duen BADIHARDUGU ere Azokan, urtero moduan

Badihardugu Euskara Elkarteak ahozko ondarearen bilketan dihardu bere sorreratik eta herri hizkerak ere jasotzen ditu, Euskal Herriko Ahotsak (www.ahotsak.eus) proiektuari esker. Euskalkien eta ahozko ondarearen inguruko argitalpenekin datu-basa ere sortua du, webgunean bertan. Durangoko Azokan ere, Euskal Herri osoko ahozko ondarearen inguruko lanak eta lan dialektologikoak eskaintzen ditu urtero: Antzuolako hizkera, Aramaioko euskara, Mallabiko euskara, Bergara aldeko hiztegia, Eibarko euskara, Ordiziako euskara, Derioztarren euskara, Urretxu-Zumarragako euskara, Zaldibar barbarik berba, Zarautz hizketan, Biarnoko euskaldunak, Gipuzkoa Hegoaldeko euskara, Elorrixoko berbetia...





*amagoia gomez*

Hau al da garapen jasangarria? Lur planetarentzat ez behintzat. Ez dut sinesten munduko liderrek adostutako Agenda 2030ean; nahiago dut neure kabuz hasi.

Erronka polita

Aiton-amonen gerra eta gerra osteko miseria garaietatik, **seme-alaben gehiegizko kontsumora pasatu gara, konturatu bariarik kasik**. Etxea tresna elektrikoak bete zaigu (telebista bakarra ez da nahikoa, mugikorrak, robot-aspiragailua, hortzetako eskuilak, portatila, tableta, termomixa...); urtaro bakoitzean modan dagoen erroa berria erosten dugu (ahalik eta merkeena, auskalo non/nola fabrikatua baina merkea); plastikoz jositako produktuak ekoiztu eta kontsumitzen ditugu (dosi txikietan plastifikatuta datozen xaboiak, gailetak, barazkiak, fruitak...). Eta zer esanik ez gure elikadura ohiturei buruz, denetatik jateaz gain (auskalo nondik datoren koko ekologikoa barne), janaria inolako kontrolik gabe ahortzen dugu. Hori bai, gure kostaldea zikinkeriaz beteta dagoela ikusten dugunean, denok haserretzen gara. Nork bota du hori guztia itsasora? Ze lotsagabek egin du hori? Ba guk geuk jaun an-

dreok. Dena masiboki ekoiztuz eta masiboki kontsumituz. Hau al da politikariek hainbeste aipatzen duten garapen jasangarria? Jasangarria noizentzat? Lur planetarentzat ez behintzat. Garapen iraunkorrerako Agenda 2030 deritzon akordioan munduko liderrek 2030. urterako dituzten helburuak azaltzen dira, besteak beste munduan dagoen pobrezia eta gosearen amaiera (nekazaritza iraunkorra), herrialde guztietan uraren saneamendua bermatzea, itsasoa zaintzea, basoen erabilera iraunkorra izatea, biodibertsitatearen galera murriztea, bakea herrialde guztietan, lan duina denontzat, genero berdintasuna, energia jasangarria eta aldaketa klimatikoaren aurkako neurriak hartzea. Erronka polita, ezta? Ba nik neuk zoritxarrez oso konfidantza gutxi daukat politikariengan eta, beraz, egunerokotasunean gauza txikiak egiten hasiko naizela erabaki dut. Eta zu, animatzen zara?

*imanol magro*

Kritika destruktibo gehiegi egiten dira, eta Euskaraldia bere tamainan baloratu behar da. Hau hasiera besterik ez da. Txaparen tokia txip berriak bete dezala.

Txapa eta txipa

Armairua ireki eta hor daude Euskaraldiako txaparekin zuloz **beteriko jertse pareta eta elastiko mordoak**. Zehar kalteak dira, arropa berria saltzeko kanpaina biral aparta. Nik, dena den, harro erakutsiko ditut zuloak aurrerantzean, gerra orbainak bailiran. Izan ere, Euskaraldiaren oso aldekoa naiz. Ez dit bizitza aldatu, baina esperimendu interesgarria iruditu zait, esperientzia pertsonal aberasgarriak eragin dizkidana, eta ziklikoki errepikatu beharrekoa. Mesfidati hartu nuen, ni berez bizi naizelako euskaraz, baina eszeptikoen argudioek eman zidaten azken bultzada. Izan ere, iruditzen zait oso modu merkean kritikatu dutela Euskaraldia. Jakina da ez duela egun batetik bestera Eibar edo Euskal Herria euskaldunduko, baita ere askok kosmetika ekin-tza bezala erabili dutela, Ahobizi eta Belarriprest guzti guztiek ez dutela diziplina zorrotza izan ere agerikoa da, eta Bihotzgoxo

figurak agian ez zuen zentzu handirik... Bai, kritiko maitea, hori guztia bagenekien, ez gara inozoak.

Eszeptizismoak, zinismoak eta ironiak prentsa onegia dute, inteligentziarekin lotzen diren ezaugarriak dira eta ez du zertan. Kritika destruktibo gehiegi egiten dira, eta Euskaraldia bere tamainan neurtu eta baloratu behar da. Nire bizitzako eremu ezberdinetan txapa zeraman jendeari anekdota eta pasadizo txiki politik entzun dizkiet. Euskaraz hitz egiten hasi zaien bizilaguna, aurrerantzean enkargua euskaraz egiteko eskatu dien okina, beste txapadun bat ikustean gurutzaturiko begirada konplizea... Eibarren 3.735 izan gara, eta bakoitzak euskararekiko esperientzia positibo bakar bana izan badu, merezi izango zuen txipa aldatzeko. Hau hasiera besterik ez da, egi borobil handia irakurri genuen Untzagan. Txaparen tokia txip berriak bete dezala orain.

Waterpoloan bikain dihardute egiten Urbateko talde guztiek

Gure herriko klubak maila handia esku-ratu du dagoeneko eta taldeek euren partiduak irabaztea ez da gauza berezia azken aldian. Azken jardunaldian senior mailako talde biek irabazi zuten: mutilek 9-17 Donostian eta neskek 9-14 Irunen Bidasoa XXI taldeari. Aurreko asteburuan, bestalde, mutilen taldeak bosna egin zuen Fortunarekin, neskenak Burgosko Castellari 19-3 irabazten zion bitartean, partidu zoragarria borobilduta. Aipatutako emaitzekin, talde biek zazpi jardunaldi jokatu eta gero, gizonen taldeak 13 puntu bikain bereganatu ditu sailkapenean, eta



nesken taldea, urrutirago joanda, 18 puntura heldu da dagoeneko. Behe mailako partiduak ere onak izan dira eibartarrentzat azken asteburuan: jubeniletan, neskek 3-17 irabazi zioten Lautadari eta mutilek 13-2 Donostiri. Kadete mistoen taldeak jaso zuen porrot bakarra, partidu zailean: 9-14 galdu zuten Orbean Leioarekin.

Zozketako irabazlea

Urbat Waterpolo Taldekoek San Andres egunean egindako zozketan, otarraren irabazlea erretratoan daukazen Xabier Azpilikueta izan zen. Zorionak eta on egin!

Pilota Eskolakoak Mutrikun izan ziren zesta-puntan trebatzen

Aurreko asteburuan 90 bat lagun joan ziren Mutrikura bi autobusetan bertako

frontoian zesta-puntako ikastaroa jasotzera. Juanjo Urkiri eta Andoni Agirregomez-

korta izan zituzten gidari xisterek in ia bi orduko saioan: txikiak, nagusitxoagoak eta gurasoak, denek hartu zuten parte zesta-punta modalitate biziari. Mutrikuko Denok Bat taldekoek bina partiduko bi erakustaldi prestatu zituzten eibartarrentzat. Manex Sasian eta Unax Urkiri Erlantz eta Eñaut Urreistiren kontra izan zen lehenengoa. Hilaren 15ean Mutrikun bertan jokatuko da Euskal Herriko zesta-punta txapelketa. Aukera polita bertara joateko.



Xabier Beorlegi izan da Deporreko xakelari onena Gipuzkoako txapelketa nagusian

Zapatuan amaitutako txapelketa horretan 16. postuan sailkatu zen eibartarra, eta Jon Arana taldekideak 21. postuan amaitu zuen. Alejandro Franco nazioarteko maisuak jaso du txapela eta berarekin izan dira podiumean Iñigo Argandoña eta Asier Lakuntza. Bigarren mailako txapelketan, berriz, azkenengo txandan eibartarren arteko derbia jokatu zen, Jose Antonio Garrido eta Adrian Martinikorenaren artekoa hain zuzen ere. Partida luze baten ostean, Garrido gailendu zen eta, horri es-

ker, sailkapeneko 6. postua lortu zuen. Martinikorena 13. postuan geratu zen. Eta hirugarren mailako txapelketan Aitor Beorlegi 17. geratu zen eta Oier Garcia 36.

Bestalde, **Danobat Elgoibarko txapelketa** hilaren 13an jokatuko den jardunaldian erabakiko da. Klub Deportiboko Jon Arana da gaur egungo liderra, Isidro Ruizekin berdinduta, eta Johnny Sadusea venezolarra izango du aurrean azken partiduan. Jon Esturo eta J. Antonio Garrido eibartarrek ere hartzen dute parte torneoan.

34-35 galdu zuen Eibar Rugbyak Bera Berarekin



Unben eguerdiko 12:00etan jokatutako partidua ezin borrokatuago izan zen eta, azkenean, puntu bakarrarengatik galdu zuten eibartarrek, atsedenaldira 24nako berdinketarekin erretiratu eta gero. Azken unean erabaki zen neurketa Bera Beraren alde. Galduta ere, maila eman zuten eibartarrek. Bestalde, Amaiur Mayo Espainiako selekzioarekin dago egunean Newcastleen jokatuko den partidurako.



Arima Galduak 13. postuan amaitu zuen jugger lehen jardunaldian

Aurreko asteburuan Zaragozan abiatutako Ligako lehen jardunaldian gure herrian sortu berri den taldeak 13. postuan sailkatu zen (16 talderen artean), jokatutako zortzi partiduetatik bi irabazi eta beste seirak galduta. Eibartarrek sei puntu lortu zituzten (20 tanto alde eta 73 aurka). Asturias eta Kantabriako Junok irabazi zuen torneo, Mitos-eko bizkaitarrek eta 1,5V taldeekin berdinduta.

Aviak babestuko du herriko saskibaloia kluba denboraldi honetan

Azken urteotan Katu Kale izenarekin jokatzen duen Eibarko K.A. 1173 Saskibaloia Avia izango du babesle nagusia 2018-19 denboraldirako, "horrek klubeko talde guztiei eskaintzen dien lasaitasunarekin aurre egin beharko dieten erronkei begira", Avia Eibar Saskibaloiko agintarien hitzetan. Gainera, talde bakarra izatetik (senior mailakoa) zortzi izatera pasatu da kluba iaztik. Talde gehienek urrian hasi zuten denboraldia eta gazteenek (alebinek) hilabete honetan abiatu dute kompetizioa. Guztien helburuak "gutxinaka bada ere" betetzen doazela diote arduradunek. Seniorren lurraldeko 3. mailan jokatzen duen Avia Eibar Saskibaloiko lehen taldeak le-



Saskibaloilari gazteen erakustaldia Untzagan.

henengo porrota jaso zuen aurreko aste-buruan, 51-49 galduta Saski Axularrekin Donostian, taldea baja ugariarekin aurkeztu zen partiduan. Hala ere, multzoko liderrak dira egun, lau garaipen eta porrot bakarrekin. Kadeteetan neurketa zailak izan zituzten talde biek, multzoetako onenak aurkari zituztela: mutilen taldeak Goierrekin galdu zuen Urretxun eta neskenak Zarauzko Zast 2003rekin Ipuruan. Infantiletan, Haundia 50-77 nagusitu zen Astigarragan fase berriari zegokion lehen partiduan eta Txikiak 41-32 galdu zuen Zarautzen, hasiera kaskarraren ondoren. Aste-buru honetan zazpi taldek izango dituzte partidua.



Alberdi eta Estenaga Kalamuako Manu Agirre eta Gaztela-Mantxako Federazioko ordezkariarekin.

Kalamuako bi ordezkariaren debut ezinhobea lehiaketetan

Aurreko asteko domekan Puertollan (Ciudad Real) Antonio Rivilla kiroldegian jokatutako jiu-jitsuko kadete eta infantil mailetak XIX. torneo nazionalen estatu osoko 130 neska-mutil izan ziren parte hartzen, hogeitabat talde ordezkatzeko, eta hor izan ziren Kalamuako bi kirolari ere.

Euren debuta zen horrelako torneo batetan eta bikain baino bikainago jardun zuten biek ala biek: Eider Alberdik urrezko domina irabazi zuen eta Koldo Estenaga ere finalera iritsi zen eta zilarrezkoa bereganatu. Infantil mailakoak dira biak eta etorkizun ezin oparoagoa aurrirakusten zaie.

2019rako udal kirol instalazioen zozketa egingo da 17an

Astelehenean, hilaren 17an, datorren urterako instalazioen zozketa egingo da Ipurua kiroldegiko prentsa gelan. 19:00-etan Unbeko tenisa eta foballa eta Ipurua-ko squash-a eta areto-foballa zozketatuko dira, ordu laurden geroago frontoia, eta 20:00etan padela.



Deporrekoek Gaztaren Ibilbidea amaitu dute

Azaroaren 24an 38 lagunez osatutako talde batek Gaztaren Ibilbidearen sei-garren eta azken etapa egin zuen, Etxegaraten hasi eta Lizarrustin amaitzeko. Klub Deportiboko mendi taldeko gehienek puntu horien bitartean dauden tontor guztiak egin zituzten: Balakaleku (981 m.), Munaan (908), Intzetako gaina (870), Intsusburu (886), Argoniz (919), Beitzeta (903), Hirimugarrieta (965) eta Aasko (790). Lasaia ekin ziotenek, bestalde, ibilbide ofiziala jarraitu zuten, horietako

tontor batzuk bakarrik egiteko. Etapa horretan, gure arbasoek makina bat aldiz egindako bidea denez, hainbat megalito eta tumuluak geratu dira lekuko bezala: "Mendebaldeko Igartza tumulua, adibidez. Bernaoko galtzada eta Zelatamuño ere ikusi genituen basoa zeharkatu eta Lizarrustira heldu aurretik". Eguna nahiz eta freskotxo eta lainotuta hasi, azken kilometroetan eguzkia agertu zen; ondo me-rezitako bazkaria Lizarrustiko parketxean egin zuten.

Takuai, txakur-kros talde berria Eibarren

Hainbat urtetan zehar Euskanikross Hondarribiko txakur-kros taldean edo bakarka ibili eta gero, Fabian Castro, Andoni Isusi eta Andoni Mayok txakur-kros taldea sortu dute Eibarren, Takuai Mushing Team. Taldeak argia orain ikusi badu ere, asmo handiak ditu eta Europara begira ekin dio bideari. Denboraldia hasi berri dute eta kilometro asko dituzte aurretik txakurrekin antxixiketetan egiteko.



Hiru lagun besterik ez dira, baina potentzial handia dauka Takuai Mushing Teamek. *"Fabian eta Andoni bikain dabilta, eta hemen inguruan txakur-krosaren inguruko zaletasuna izanda, pentsatu genuen ez dugula zertan Bilbo edo Donostia aldera joan behar kirola egiteko"*, esan digu Andoni Mayok. Isasi kalean dagoen Rocket Bike dendarekin elkarlanean atera duten proiektua da eta dagoeneko ikusi daiteke euren kamiseta berria lehiaketetan.

Espainiako Kopa lehiatzen ari dira, Espainiako Txapelketa barne (asteburu batean jokatzeko dena). *"Gero, Mayo Euskadiko Txakur-kros Ligan (ETL) dabil batez ere, baina Errioxa, Kantabria eta inguruko herrietako txapelketetan ere ibiltzen da"*, esan digu Fabian Castro 2017/18 denboraldiko ETLko txapeldunak. *"Isusi eta biok Espainiakoan gaude zentratuta, eta Europako txapelketara sailkatzea dugu helburu"*. Castro min hartuta dago eta ezin izan

da Espainiako Kopako lehen lasterketan eta Espainiako Txapelketa lehiatu, baina Isusi ondo ibili da bietan eta Espainiako Kopako lehenengo lasterketan 5. izan zen eta Espainiako Txapelketa 7. amaitu du.

Hirukotearen maila handia bada ere, ezin da esan urte asko daramatzatenik kirol honetan. *"Fabianek 3-4 urte daramatza eta nik 2-3 urte, baina Mayok gutxiago darama eta horregatik dago ETLan zentratuta"*, esan digu Andoni Isusik. Esperientziak garrantzia dauka, baina baita txakurrek ere. Kirol hau egiteko txakur espezifikoak dituzte Castrok eta Isusik, baina Mayok ez. *"Etxeko beagle arrazako txakurrekin lehiatzen naiz eta, berarekin ezin dudanez helburu handirik eduki, afizio moduan hartzen dut"*, dio Mayok. *"Edozein txakurrekin lehiatu daiteke, baina egia da sailkapenaren goialdean egotea nahi baduzu, txakur-krosarako espezifikoak den txakurra eduki behar duzula"*, azpimarratzen digu Castrok.

Txakurra eta kirolaria bat

Txakurraren eta kirolariaren arteko harremana berezia izan ohi da txakur-krosean, bien arteko konbinazioak ematen duelako azken emaitza. Lehiakide bakoitzak bere txakurrak izan ohi ditu, baina Isusi Castrok txakurrekin lehiatu da azken lasterketan. *"Denbora asko pasatzen dugu elkarrekin eta oso ondo ezagutzen dute elkar"*, dio Castrok. *"Ezezagun batekin, ordea, bali-teke txakurrak tiratu nahi ez izatea"*.

Temperatura kontuagatik negu aldean izaten dira txakur-kros txapelketak, txakurrek gehiegi sufrizten dutelako 16º baino gehiagorekin. Izan ere, txakurrak ondo zaintzea berebiziko kontua da txakur-krosean. Lasterketa bakoitzean albatariak egoten dira, ezin zaio jo azkarrago joateko eta, nahiz eta lehiakide batzuek txakurrak lehiaketetarako bakarrik erabili, Takuai ez du filosofia horrekin bat egiten. *"Gure txakurrak gure maskotak dira"*, Mayoren berbetan.

Talde irekia, baina konpromisoarekin

Takuai Mushing Team talde irekia da, baina hirukoteak konpromezua eskatzen die izena-eman nahi dutenei. *"Taldea serioa izatea nahi dugu, ez hainbeste mailari dagokionez, baina bai txapelketetara joateko konpromisoarengatik"*, dio Castrok. Pistan, mendian edo Aixolako presan ibiltzen dira entrenatzen, txakurrari lotuta edo solte. Eta fisikoki prestatzeaz gain, ondo pasatzea dute helburu, *"txakurrek batez ere"*, Castrok dioenez.

Txakur-krosa probatu nahi duenak takuamushing@gmail.com helbidera idatzi edo taldeak Facebook (Takuai Mushing Team) eta Instagramen (@takuaimushing) dituen orrialdeetara jo dezake.





JOSE VILA: "Udazken hasierako koloreak".

Abenduaren 15ean gazteentzako kontzertuak eta dantza masterclassa izango dira Astelena frontoian

Abenduaren 15ean Gipuzkoan Gazte Tour iritsiko da Eibarrera. Arratsalde- iluntzean musikarentzako tartea izango da Parrapas, Bago!az-eko protagonistak, Twin Melody eta DJ Txurruren eskutik, Astelena frontoian. Sarrerak 5 euro balio du eta saioak 18:00etan hasiko dira. Sarrerak Kutxabank bitartez edo Coliseoko leihatilan eros daitezke. Eta goizean, bestalde, PSK taldearen dantza-masterclassa izango da, dohainik.

Gipuzkoan Gazte Tour probintzian musika eta arte eszenikoen inguruan hainbat ekimen biltzen dituen egitasmoa da. Gipuzkoako Foru Aldundiarena da, eta beste hainbat eragilerekin elkarlanean garatzen du. Programa orain arte *Gaztemaniak* izenarekin ezagutzen zen, eta 12 urtetik 25 urtera bitarteko gazteei zuzendua dago. Bere helburu nagusia nerabe eta gazteei kultur programazioa eskaintzea da, ikuskizunaren parte senti daitezen saiatuz. Aurten Arrasate, Zumarraga, Azpeitia, Zarautz, Irun eta Hondarribira ez ezik, Eibarrera ere iritsiko da, eta horretarako Eibarko Udlaaren laguntza izan dute.



DJ Txurru

11:00- DANTZA-MASTERCLASSA

Lekua: Astelena pilotalekua

Orduetgia: 11:00

Sarrera doan (izen-ematea Pegoran)

PSK (Pauso-K Dance Studio) Irunen dagoen dantza-eskola bat da, dantzaren diziplina ezberdinak irakasten dituena (klasikoa, modernoa...). Bertako irakasle zein koreografoak Dantzango! telebista-saioko koreografiaren diseinatzaile gisa aritu dira.

18:00- PARRAPAS TALDEA

Parrapas Erromeria taldea orain dela urtebete sortu zen, 17 eta 19 urte bitarteko Eibar eta Ermuko bost gaztek osatuta: Julen Leturiondo (ahotsa eta panderoa), Marina Ereña (trikitixa), Alex Davies (baxua), Egoitz San Martin (gitarra) eta Josu Cascan (bateria).


Lehenengo kontzertua eman zutenetik alde batetik bestera ibili dira euren giroa hedatzeko asmoz. Poliki-poliki talde profesionalagoa sortzea dute helburu, kontzertuen bidez esperientzia desberdinak sortuz.

Euren "etiketa" erromeria da, euskara bizi eta hedatu nahi dutelako, baina estilo ezberdineko kantak jotzen dituzte, betiere horien mezuaz jabeturik.

www.instagram.com/parrapaserromeria

19:00- BAGO!AZ TALDEKO PROTAGONISTAK

Beñat Arizabaleta, Ane Rot, Irati Morales, Aritz Elustondo, Amaiur eta Udara Zubillaga, Bago!az telebista-saio musikaleko protagonistak dira. Sei euskal talentu gazte hauek oholtza gainean ehuneko ehuna ematera ohituta daude. Horrez gain, ezagutzeko aukera ematen dute kontzertuen ostean, *meet & greet* delako zonaldean.



Twin Melody

EMANALDI NAGUSIA

20:30- TWIN MELODY

Paulak eta Aitanak 5 milioi jarraitzaile baino gehiago dituzte Tik Tok, Youtube eta Instagram-en gaur egun. Bikiak diren bi ahizpa ordiziar hauek sare sozialetan sekulako arrakasta lortzen hasi ziren, beste artista ezagunen abestiak bertsionatuz. Telebista saio ezberdinetan parte hartu dute euren talentua erakutsiz (Bago!az, Goazen! Telesaila). Orain dela gutxi aurreneko diskoa kaleratu dute "Twin Melody" izenarekin.

www.instagram.com/twin_melody/

21:00- DJ TXURRU

Publikoarekin konektatzeko ahalmen berezia du Egoitz Txurrukak "Txurru". Duela 3 urte hasi zen irrastian (Euskadi Gaztean) eta 2 urte daramatza DJ lanetan toki ezberdinetako festak girotzen.



Pausoka



Parrapas

ANGEL MARIO FERNANDEZ (idazlea):

“Debabarreneko biztanleek kontatu dizkidaten gauza asko isladatuta daude liburuan”

Abenduaren 10ean “Che, Aitona! Las palabras enterradas” liburua aurkeztuko du Angel Mario Fernandez kazetari eta idazle argentinarrak Portaleko Areto Nagusian, 19:00etan. Liburuaren egilea orain dela 12 urte bizi da gure artean, hasieran Eibarren eta orain Sorluzen, eta Espainiako gerra zibilari, Argentina alderako euskal emigratori eta hauen ondorengoetako batzuen itzulerari buruzko ikerketa sakonaren ostean idatzi du bere azken nobela.

- Bi kulturen arteko topaketari buruzko nobela idatzi duzu, Argentinako Che-a eta Euskal Herriko aitona. Ez da kasualitatea izango, ezta?

Gerra zibila dela eta, Debabarrenetik Argentinara ihes egin behar duen 17 urteko mutil baten istorioa da. Azken finean, euskaldun askoren bizipenak dira. Argentinan 3 milioi euskaldun bizi dira, hauen ondorengoak barne. Beraz, euskaldun kopuru handiena duen bigarren herrialdea gara, Euskal Herria eta gero. Jatorri euskalduneko 5 lehendakari izan ditugu, eta 15.000 abizen euskaldun daude. Guzti horretaz egingo da berba datorren astean Portalean egingo dugun aurkezpenean; kultura bien arteko lotura, Euskal Herriko historia –gerra zibiletik gaur arte–, gai konfliktiboa... Eta dena begirada neutral batetik.

- Aurretik hainbat lan idatzita dituzu, 'Las rosas de Anita', 'Hijos del corralito', 'La guerra del agua' edo 'El detective ciego', esaterako, baina idatzi berri duzun hau hau zure lanik konprometituena dela diozu.

20 liburu inguru idatzi ditut eta hau zorzigarren nobela da. Haurrentzako ipuinak ere idatzi izan ditut. Konprometituena, dena dela, “Che, Aitona!” da. Ikerketa oso sakona egin behar izan dut –nobela bat izan arren, datu historiko ugari agertzen dira–. Testuetan asko arakatzear gain, bailarako jende askorekin egon naiz, beste eibartarrekin ere. Debabarreneko biztanleek kontatu dizkidaten gauza asko isladatuta daude liburu honetan.

- Zer gehiago aurreratu ahal diguzu?

Istoria bi denboraldi desberdinetan

kontatuta dago. Joseba Etxebarria aitona perspektiba dago alde batetik: Josebaren aita errepublikanoa izateagatik erahil zuten, eta amak gerratik ihes egitera eta bizitza hobetuko baten bila Argentinara ihes egitera “behartu” zuen. Joseba ez da berriro Euskal Herrira bueltatuko. Bestalde, Josebaren bilobaren perspektiba dago, bere aitona egindako ibilbidea egingo du, 70 urte aurretik gertatutakoa jakiteko. 500 orrialdeko liburua da, eta irakurri dutenek erraz irakurtzen dela esaten dute, Disenu rustikoa dauka, Amazonen dago salgai, Sorluzen dagoeneko hiru lekutan dago salgai, eta Eibarren ere nonbaiten jarriko dugu. Dena dela, aurkezpen egunean liburua erosten dutenek deskontu berezia izango dute. Gonbidatuta zaudete!



Deporreko argazkilarien erakusketa kolektiboa Portalean

Abenduaren 7an, 19:00etan zabalduko dute “Paisaia” izenburuko argazki erakusketa Portalean. Klub Deportiboko Argazki Taldeko kideen eskutik urtero egiten den erakusketa kolektiboan taldeko hainbat kideren lanak ikusteko aukera izango da. Oraingoan parte hartzera animatu diren argazkilariak Oscar Baglietto, Jose Vila, Jose Luis Irigoien, Bakarne Elejalde, Jose Ignacio de Castro, Juan Antonio Palacios, Pedro Arriola,

Jose Valderrey, Enrique Lorenzo, Zigor Astigarraga, Fernando Retolaza, Juan Manuel Lucena, Enrique Albistegi, Virginia Arakistain, Fernando Alonso, Einer Rodriguez, Mikel Urionaguena, Sil-



via Tardio, Estrella Tardio, Josean Carbajo, Fernando Solana eta Federico Cuenca dira. Urtarrilaren 5era arte egongo da ikusgai, martitzenetik domekara, 18:30etik 20:30era.



“FruteriXia” lanak saria jaso du Beldur Barik Lehiaketan

Azaroko azken zapatuan Gasteizen egindako Beldur Barik Topaketan banatu zituzten Beldur Barik aurtengo lehiaketako sariak eta horietako bat Eibarrera ekarri dute Jone Bengoa Urizar, Uxue Igarza Loyola eta Marta Marina Larrañagak, “FruteriXia” lanarekin “Ikusentzunezko ekoizpen onenari saria” irabazi dute eta, zorionak!



Miguel Hernandez eta Dario Fo, Ikasten-La Novenaren eskutik

Ikasten elkartearen eta La Novena taldearen eskutik, abenduaren 13an, 19:00etan, saio bikoitza hartuko du Portaleak. Batetik, bere heriotzaren 75. urteurrena bete dela eta, Miguel Hernandez poetaren lan esanguratsuenak errezitatuko dituzte. Eta, horrekin batera, Dario Foren “La violacion” eskainiko dute. Ernesto Barrutiak zuzenduko du saioa eta aktore lanetan ere ibiliko da, Isa Gonzalezekin batera. Biei gitarraekin laguntzen, berriz, Vicente Beldak jardungo du.



Algaraklown-en egutegia ...eta kitto!-n salgai

Ospitaletan lan egiten duen Algaraklown, irabazi asmorik gabeko pailazo taldeak 2019. urterako egutegia argitaratu du eta Eibarko hainbat lekutan jarri dituzte salgai, horien artean ...eta kitto! Euskara Elkartearen. Egutegiak 10 euro balio du eta lortutako dirua ospitalean daudenen bitzita, umorearen bitartez, apur bat xamurtzeko erabiliko du Algaraklown taldeak.



Ibon Muñoaren liburu berria

Urteroko martxan, Ataramiñe Elkarteak euskal presoen hainbat lan eman ditu argitara, tartean Ibon Muñoa eibartarraren bertso-olerki bilduma berria, “Hamaika desio utopiarako” izenburukoa. Muñoaren bosgarren liburua da eta, ohi duenez, ordena kronologikoari jarraitzen diote liburuko bertsoek. Kordobako espetxean sortutako 141 bertso berri ditu Muñoaren lan honek. Ataramiñek Durangoko Azokan jartzen duen standean erosteko aukera izango da.

M^a CARMEN MAGUREGUI ZABALA

(III. URTEURRENA: 2015-XII-1)

“Beti gure bihotzetan izango dugulako zure irrifarre polit hura ahaztezina”

-ETXEKOAK-



“Izoztutako haizea bezala” antzezlanaren aurkeztuko du Tanttakak

Abenduaren 7an, 20:30ean, Tanttaka konpainiak “Izoztutako haizea bezala” antzezlanaren aurkeztuko du, euskeraz, Coliseo antzokian. Fernando Bernuesek zuzentzen duen lan honetan Nerea Elizalde, Tania Martín eta Koldo Olabarri antzezleek hartzen dute parte.

Ekoizpen honekin Tanttakak abusuari buruzko trilogia ixten du. Kasu honetan, farmazia batean ematen den tiroketak munduak txarto tratatutako hiru gazteren topaketa ahalbidetzen du. Uste duguna baina ohikoagoa den errealitate bat kontatzeko thrillerra da antzezlanaren. Zuzendariaren berbetan, “oso zaila da ha-



tzamarra jaso eta ‘ni biktima izan naiz’ esatea. Lan hau, antzezlan sinple bat den neurrian, horretarako baliogarri ba-

da, ongietorria izan dadila”. Sarrerak 10 euro balio du (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin).

Gotzon Herrosilla idazlearekin “Harixa Emoten” gaur bertan



Argazkia: Juan Carlos Ruiz/FOKU

Euskerazko irakurle taldearen abenduko saioa gaur arratsaldean, 19:00etan izango da, Portalean. Gaurkoan Gotzon Herrosilla (Barakaldo, 1966) izango da idazle gonbidatua eta aurten Elkar argitaletxearekin kaleratu duen “Gaur galtzea tokatzen da” liburuari buruz berba egitera etorriko da. Fikziozko lanekin bakarka osatu duen lehen liburu honetan bi ipuin mota elkartu ditu egileak. Batetik, taberna-zuloko istorioak: gauean noraezean bezala irten eta lokal jakin batzuetara jotzea, zer harrapatuko; dela droga legala, dela –batez ere– ilegalak. Bestetik, han eta hemen giroturiko narrazioak: Galizian gerraostean Guardia Zibilaren zanpaketa, 60ko hamarkadan Euskal Herrian grebak apurtzeko eskiriol gisa kontratatutako migratzaileak, Meatzaldeko industrializazioaren lan-baldintza gogorak, Txina urrunean kokaturiko kontakizun miresgarriak... Betiko moduan, Antxon Narbaizak gidatuko du saioa eta idazlearekin liburuari buruz hitz egin nahi duen edozeinek izango du saioan parte hartzeko aukera.

Abenduko argazki erakusketak herriko ohiko tabernetan



Fernando Solana

Klub Deportiboko Argazki Taldearen eskutik, abenduan ere ohiko tabernetan argazkiak ikusteko aukera izango da, antolatu dituzten hiru erakusketetan: El Ambigu kafetegian Pedro Arriolaren “Paine park” izenburuko egongo da ikusteko moduan, abenduaren 31ra arte. Eta Portalea jate-txeak eta Klub Deportivoaren tabernak “Kaleko argazkiak Bilbon” (“Street Photography en Bilbao”) izenburuko erakusketak bana hartuko dute.



Padro Arriola



Kandelak egiten ikasteko tailerra egingo da ...eta kitto!-n

...eta kitto! Euskara Elkarteak kandela ikastaroa antolatu du abenduaren 19rako (eguztzena). Abadiñon dagoen Alluitz Natura baserri-eskolako Silvia Formentik emango du kandelak egiten ikasteko tailerra, 19:00etatik aurrera ...eta kitto! Euskara Elkartearen (Urkizu, 11 solairuarekin). Izen-ematea gaur zabaldu dute eta, interesa izanez gero, zuzenean ...eta kitto!-ra joan edo telefonoz deitu (943200918). Tailerraren prezioa 3 eurokoa da.



Kontsezioko Bertso Jaialdia MARKINAN

Zapatuan, hilaren 8an, urteroko Kontsezioko Bertso Jaialdia egingo dute Markina-Xemeinen. Ekitaldia arratsaldeko 17:30ean hasiko da, ohikoa denez, Uni Frontoian. Amaiur Kultur Elkarteak antolatzen duen bertso-jaialdia Saroi Jauregik gidatuko du eta Eibarko kaleetan dagoeneko ikusi daitezkeen hori kolore deigarriko karteldegietako sei protagonistak honakoak izango dira: Uxue Alberdi, Amets Arzallus, Andoni Egaña, Nerea Ibarzabal, Maialen Lujanbio eta Jon Maia. Lehen mailako bertsolariak, betiko moduan.



Hurrengo barixakuan bertsoak ELGETAN

Eta hilaren 14an, hurrengo asteko barixakuan, bertso-jaialdia hartuko dute Elgetako Espaloia kafe-antzokian. Elgetako Udaleko Kultura sailak antolatutako saioa gaueko 22:30ean hasiko da eta parte hartuko duen bertsolari laukotea Ainhoa Agirreazaldegia, Maddalen Arzallus, Andoni Egaña eta Julio Sotok osatuko dute, Aintzane Irazusta gaitzartzailearen aginduetara.

eguraldia (EUSKALMET.NET)

Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala	Larunbata

hildakoak

- Santos Aizpun Perez. 71 urte. 2018-XI-23.
- Trinidad Corral De la Fuente. 84 urte. 2018-XI-26.
- Juan Florencio Martinez-Alcocer De Blas. 63 urte. 2018-XI-27.
- M^a Angeles Varela Loiola. 92 urte. 2018-XI-28.
- Milagros Regulez Martinez. 93 urte. 2018-XI-29.
- Jesusita Bergara Burgaña. 89 urte. 2018-XII-1.
- Primitiva Benito Bernini. 89 urte. 2018-XII-2.

jaiotakoak

- Sheila Valdes Alunda. 2018-XI-20.
- Malen Hernandez Trenado. 2018-XI-27.
- Txomin Vega Fernandez. 2018-XII-2.

farmaziak

- Martitzena 4
EGUNEZ **Elortza** (J. Gisasola, 18)
- Eguaztena 5
EGUNEZ **Iraundegi** (Calbeton, 19)
- Eguena 6
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- Barixakua 7
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- Zapatua 8
EGUNEZ **Zulueta** (San Agustin, 5)
- Domeka 9
EGUNEZ **Morgado** (San Agustin, 3)
- Astelehena 10
EGUNEZ **Castaño** (J. Etxebarria, 7)
- Martitzena 11
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- Eguaztena 12
EGUNEZ **Elortza** (J. Gisasola, 18)
- Eguena 13
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- Barixakua 14
EGUNEZ **Lafuente** (Sostoatarren, 10)

GAUEZ BETI - 2018AN-
Lafuente (Sostoatarren, 10)

SUDOKUA

AURREKOAREN
 EMAITZA

7	2	8	3	4	1	6	9	5
5	3	1	9	8	6	4	7	2
6	9	4	5	7	2	8	3	1
4	6	2	7	5	3	1	8	9
8	5	3	1	9	4	2	6	7
1	7	9	2	6	8	3	5	4
9	8	6	4	1	7	5	2	3
3	4	7	8	2	5	9	1	6
2	1	5	6	3	9	7	4	8

3			4					1
				5	3			2
				8				6
4				3				7
			1		4			
7	5			2				8
8	9			4				
	7			2	9			
2						8		
								4

telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora.....010
- Udaletxea.....943 70 84 00
- Portalea.....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB.....943 20 38 43
- Epaitegia.....943 03 34 00
- Iberdrola.....901 20 20 20
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.....943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Mendaro ospitala.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia.....943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza.....943 53 17 00
- Eusko Tren.....902 54 32 10
- Lurraldebus.....900 30 03 40
- Pesa.....900 12 14 00
- Taxiak.....943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- AI-Anon/Alateen.....650 26 59 63
- Grupo Egun Bat (Jokazale Anonimo eta Familiak).....699 37 75 20

Martitzena 4

IKASTEN

10:00. "Eraikin aipagarriak (II)" hitzaldia, Josean Blancoren eskutik. Armeria Eskolan.

IKASTEN

16:00/19:00. Punto-tailerra.
17:00/20:00. Joskintza-tailerra. Portalean.

HARIXA EMOTEN

19:00. Idazlearekin Harixa Emoten euskerazko irakurketa kluba: "Gaur galtzea tokatzen da" (Gotzon Hermosilla). Portalean.



Eguaztena 5

EIBARKO KANTUZALEAK

19:00. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

Eguena 6

KALEETAN KANTUZ

17:00. Kaleetan Kantuz dantza taldearen entsegua (hastapena, beteranoen entsegua 18:00etan hasiko da).

19:30. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

Barixakua 7

IKASTEN

10:30. Antzerkia. Portalean.
11:00. Jardiñetan (lorazaintza). San Andres egoitzan.

ANTZERKIA

20:30. "Izoztutako haizea bezala" antzezlan, euskaraz (Tanntaka). 10 euro (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseoan.

Astelehena 10

ELKARRETARATZEA

12:00. Jubilatu eta pentsiodunen kontzentrazioa, pentsio duinak eskatzeko. Untzagan (udaletxe parean).

EMAKUMEEN HISTORIA

18:30. Emakumeen Historia, Pagatxa emakume elkartearen eskutik: "Las madres de Mayo". Dinamizazioa: Patricia Perex Coto. Portalean (ikastaro gelan).



LIBURU AURKEZPENA

19:00. "Che, aitona! Las palabras enterradas", Angel Mario Fernandezen liburu aurkezpena. Portalean (areto nagusian).

Martitzena 11

IKASTEN

16:00/19:00. Punto-tailerra.
17:00/20:00. Joskintza-tailerra. Portalean.

HAMAIKA BERBALDI

19:00. "Berbaldi interaktiboa: euskaldun berriak betiko berri?". Hizlariak: M. Jesus Martin, Mohamed-Fadel-Taleb Mohamed, Sara Lamas eta Alina Ivan. Dinamizazioa: Mariano Luke. Udaletxeko patioan.



Eguaztena 12

JARDUNALDIA

10:30. Emakumeen Etxeen gaineko Jardunaldia. Esperientzia-mahaia (13:00ak arte)
18:00/20:00. Parte-hartzeko dinamika: "Andretxea elkarrekin (bir)pentsatzen dugu?". Portalean.

TAILERRA

18:00. "Dibertsitatea eta diskriminazioa", diskriminazioari buruzko tailerra: LGTB, ijito, etorkinek... jasaten duten bazterketari buruz. Izen-ematea: immigrazioa@eibar.eus. Portalean.

EIBARKO KANTUZALEAK

19:00. Abesbatzaren entsegua. San Andresen.

Eguena 13

KALEETAN KANTUZ

17:00. Kaleetan Kantuz dantza taldearen entsegua (hastapena, beteranoen entsegua 18:00etan hasiko da).
19:30. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

ODOL-EMATEA

18:00. Odol-emaileentzat odola emateko saioa. Anbulatorioan.

ANTZERKIA

19:00. "Homenaje a Miguel Hernández en el 75 aniversario de su muerte" eta "La violación" (Dario Fo). La Novena-lkastearen eskutik. Portalean.



Erakusketak

Abenduaren 16ra arte:

– ROSARIO BAGLIETTAREN "REPRODUCCIÓN OVÁRICA Y DE LAS FLORES" MARGOAK (*Untzagako Jubilatu Etxea*)

Abenduaren 7tik urtarrilaren 15era:

– KLUB DEPORTIBOKO ARGAZKI TALDEAREN "PAISAIA" ARGAZKIAK. (*Portalea*)

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (barkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Zorionak, LUR!!, azaruaren 27xan 7 urte bete zenduaz-en-eta! Besarkadia famelixaren eta, batez be, Aiora eta Peruren partez!!




Zorionak, JULENE, San Andres egunian 13 urte egin zenduaz-en-eta. Musu haundi bat etxeko danon partez!



Zorionak, UNAI, azaruaren 28xan 11 urte bete zenduaz-en-eta. Musu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, AINHOA, gaur 9 urte egitten dozuz-eta. Musu pilla bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, IZAR, San Andres egunian urtetxua egin zenduan-eta. Musu haundi bat etxekuon eta, batez be, Laidaren partez.



Zorionak, MADDI!, gaur 6 urte betetzen dozuzelako! Oso ondo ospatu eta patxo haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, MARTIN, hillaren 7xan 9urte egingo dozuz-eta. Patxo haundixa famelixiaren eta, batez be, Helenaren partez.



Zorionak, SAIOA, hillaren 8xan 13 urte beteko dozuz-eta. Laztan haundi bat famelixakuen eta lagunen partez.



Zorionak, ENEKO, hillaren 15ian 14 urte egingo dozuzelako. Laztan haundi bat famelixakuen eta lagunen partez.




Zorionak, NOAH, hillaren 11n 2 urte beteko dozuz-eta. Patxo haundixa tio Iñigo eta amama Arantxaren partez.




Zorionak, TELMO Aizpitarte, maittaa, atzo 6 urte bete zenduaz-en-eta. Segi beti bezain alai, pillo bat maite zaittugu-eta.




Zorionak, AITOR, etzi, hillaren 6xan, 4 urte beteko dozuz-eta. Musu potolua etxekuen partez.



Zorionak, HAIZEA eta JUSTI, gure etxeko printzesa eta erregiña direnentzat. Askoko maite zaittuen etxeko guztien partez.



Zorionak, IBAN, zure zazpigarren urtebetetzian. Famelixa guztiaren partetik eta, batez be, Aratz eta Izeiren partez.



Zorionak, PAUL! 3 urte!!! Manexen eta famelixaren partez.



Ongi etorri, TXOMIN, domekatik gurekin zagoz-eta. Zorionak gurasueri, hain ume poliitta ekartziagaittik.



Zorionak, Ainhoa eta David. Daguaneke IZEI zuekin dago-eta. Hori bai txapelduna! ...eta kitto!-ko langille guztien partetik.



Zorionak, JUNE!!, barixakuan 9 urte beteko dozuz-eta. Primeran ospatu! Patxo potolua etxekuen partez.



Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako

eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako **PREZIOAK** honakoak dira:

Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratuko dira.

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

– Erreforma osoa behar duen pisua erosiko nuke Eibarren. Tel. 670-793312.

1.2. Errentan

– Pisua hartuko nuke alokairuan Isasi, Ipurua edo Legarre inguruan. Erostea aukerarekin. Tel. 646-369330.
– Eibarko gizon bat konpartitzeko pisu bila dabil. Tel. 634-235189.
– Pisua hartuko nuke alokairuan Isasi, Ipurua edo Legarre inguruan. Erostea aukerarekin. Tel. 646-369330.
– Eibarko gizon bat konpartitzeko pisu bila dabil. Tel. 634-235189.
– Emakumezkoak 2-3 logelako pisua hartuko luke alokairuan. Tel. 665-410232.
– Pisua hartuko nuke Eibarren alokairuan. Tel. 674-401053.

2. Motorra

2.1. Salgai

– Taxi-lizentzia transferitzen da Eibarren, jubilatuzioagatik. Auto berria. Tel. 669-253545.
– 1999 Volkswagen Passat V 1.9 TDI salgai, egoera onean. Tel. 678-075299.

3. Lokalak

3.1. Salgai

– Auto batendako garajea hartuko nuke Polonia Etxeberria inguruan. Tel. 645-007388. Ainhoa.

3.2. Errentan

– Lokala alokagai J.A. Gisasola kalean, trasteleku moduan erabiltzeko. Tel. 636-906921.
– Garaje itxia alokagai Ipurua inguruan. Tamaina txikiko edo ertaineko autoarentzat. Goitegia eta garbitegi komunarekin. Deitu 19:00etatik aurrera edo eguerdian. Tel. 656-758793.

4. Lana

4.1. Lan bila

– Emakumezkoa eskaintzen da orduka nagusiak zaintzeko, sukaldean laguntzeko eta garbiketarako egiteko. Baita asteburuetan ere. Esperientziarekin. Tel. 691-690188.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 612-258554.
– Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita asteburuetan ere. Esperientziarekin. Tel. 631-768803.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Ordu-tegi malgua. Tel. 615-526482.
– Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 602-490595.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 632-272926.

– Emakume arduratsua eskaintzen da lanerako. Baita asteburuetan ere. Tel. 631-906590.

– Emakume arduratsua eskaintzen da lanerako. Tel. 627-230784.

– Neska eskaintzen da kamarera jarduteko eta pegorak garbitzeko. Tel. 688-723105. Maria.

– Neska eskaintzen da edozein lanerako. Orduka. Tel. 682-764372.

– Emakumea eskaintzen da arratsaldez lan egiteko. Baita asteburuetan ere. Tel. 602-800266.

– Emakumea eskaintzen da interna lan egiteko. Baita gauzez eta asteburuetan ere. Esperientzia 3. adinekoekin. Tel. 631-288512.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 602-151176.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientziarekin. Tel. 643-130135.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 600-836168.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Bi urteko esperientzia. Tel. 617-919889.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo gaixoak zaintzeko (etxean zein ospitalean). Tel. 643-398596.

– Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 698-733356.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 626-407923.

– Emakumea eskaintzen da edozein lanerako. Tel. 631-195888.

– Emakumea eskaintzen da edozein lanerako. Tel. 664-169582.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Ordu-tegi malgua. Baita asteburuetan ere. Tel. 632-704643.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Ordu-tegi malgua. Baita asteburuetan ere. Tel. 632-628950.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Ordu-tegi malgua. Baita gauzez ere. Tel. 603-743240.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo gaixoak zaintzeko. Ordu-tegi malgua. Tel. 681-065683.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Orduka. Tel. 632-265200.

– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 631-354532.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta beste edozertarako. Tel. 682-704318.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Titulazioarekin. Tel. 692-932984.

– Emakumea euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Urteko esperientzia. Tel. 667-376212.

– Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 631-995976.

– Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 612-476921.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita asteburuetan ere. Esperientzia. Tel. 698-733356.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Orduka. Tel. 626-444649.

– Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko. Tel. 688-642787.

– Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-891709.

– Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Erreferentziak. Tel. 943-208107.

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 622-677230.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 643-464072.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 632-642350.

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 642-031301.

– Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 631-145986.

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-411541.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Erreferentziak. Tel. 695-701753.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 631-063561.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 667-034344.

– Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 631-979555.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak edo garbiketarako egiteko. Tel. 631-064889.

4.2. Langile bila

– Esperientziadun langilea behar da Eibar-ko ileapaindegri batean. Tel. 943-207207.

– Esperientziadun zerbitzaria behar da jate-txe baterako, autoarekin. Tel. 943-121262.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

– DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677-592509. Alberto.

6. Denetarik

6.1. Salgai

– Pailazoen sailoetara joandakoekin hainbat gauza ahatu zituzten: ume-txaleko bi, untxi-pinpina, guardasola... Etorri bila. Urkizu, 11-n.

– Remember disko-maleta saltzen dut. Tel. 629-098723 (Ibon Rojo).

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

943 20 09 18
publizitatea@etakitto.eus

Logopedak

AHOTS-LAN
LOGOPEDIA-PSIKOLOGIA



Isasi, 17 - 1. esk.
943 202691
ahotslan@gmail.com

Diagnostikoa eta tratamendua

Degluzio atipikoa	Arreta arazoak
Disfonia	Berba arazoak
Ikaste-arazoak	Dislexia

LEHENENGO KONTSULTA DOAN

AROR
PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA

----- (Ume eta helduendako) -----

Ana Artamendi

- Afasiak
- Dislexiak
- Disfoniak
- Hizmoteltasuna
- Dislaliak
- Eskola arazoak
- Degluzio atipikoa

T. Etxebarria, 10 - 6. ezk. (BIBAN)
Tel. 943 20 27 15 / 670 82 43 27

Berba
logopedia.

AIDA CORTA ANTÓN

SAN AGUSTIN, 2-4 (B. LOUZA)
Mobila: 622-629-544
logopeda@berba.es

Ebaluazioa eta tratamendua:

- Hizkuntza
- Mintzaira
- Ahotsa
- Dislexiak
- Entzumena
- Degluzio atipikoa

Okulistikak

Oftalmologoak
Centro de Oftalmología Avanzada

JOSE ALBERDI
www.oftalberdi.com

San Juan 11 - solairuartea
943 20 19 82

Recalde
Clínica Oftalmológica
Oftalmologi Klinikoa

Miopia ebakuntzak
(femtosekundoko laserrarekin)

R.P.S. 234/13



Plaza Barria 2. 2º. Tel.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com

Podologoak

- Kiropodiak, gogortasunak eta kailuak
- Atzazkal orbainduak
- Oinazpiko garatxoak (papilomak)
- Plantillak digitalizatuak (scanner bidezko inpresioa)

ELENA AIZPUN
PODOLOGOA
124 kolegiatu zenbakia



T. Etxebarria (DOS DE MAYO), 5 - 1. A
943 12 14 93 / 696 555 208

BIDEBARRIETA, 48
EIBAR
943 203050


ERDIKO KALE 54
ARRASATE
943 799746

PODOLOGOA
Erdiko klinika

Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)

PODOLOGOA

Maidier Lopez Etxebarria



Arragueta 2 Bis-B, Behea B
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.

PODOLOGO
T. ORTOPEDICO

Iñaki Rivero Zabaleta

Calbeton, 4 - 2.
(Untzagako dorrea)

Tel. 943 20 86 41

Psikologoak

AMETS
PSIKOLOGIA KLINIKOA
ETA OSASUN ZENTROA

BIDEBARRIETA, 27 - B, 1. solairua, 9. buldogea
www.centroamets.com

Coro Ortíz de Urbina - Master Praktika Klinikoa
PSIKOLOGOA (G201987 kolegiatua) - Master P.N.L.
Tel. 675 70 68 07 - Trainer

PSIKOTERAPIA ZENTRUA

HAUR, NERABE ETA HELDUENTZAKO PSIKOTERAPIA

943 20 22 66
Bidebarrieta, 27-B, 1º 3 atea
www.arratepsicoterapia.com

Lorena Izaguirre Garcia
PSIKOLOGOA-PSIKOTERAPEUTA

Errebal, 15 - 1. ezk.EIBAR
Zuberoa, 4.....ZARAUZ
Tel. 943 831 618

Psikologia klinika eta Psikoterapia zentroa

Oscar Mondragon Lili
GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ
Urkizu, 13 - behea
Telf. 943206823 eta 686859023

Tf. 686 85 73 22
moreno_iciar@yahoo.es

Itziar Moreno
PSIKOLOGOA
KOLEG. ZKIA. 1947

GIZENTASUNA ANTSIETATEA AUTOESTIMA ARAZOAK

☎ 943 12 02 00
URKIZU, 13 - 1. **ORBEAKO DORREETAN**

centro médico eibar

Psikoterapia

R.P.S. 32/17

FUB
PSIQUIATRIA / PSICOTERAPIA / ALFA EIBAR

FERNANDO URIZAR BARANDIARAN

Medikuntza Psikiatrikoa

Ego Gain, 18 - 1 A (Eibar)
615 71 54 04

Bailen, 9 - 1. ezk. (Bilbo)
94 416 49 06
furizar1@yahoo.com

Esku onetan egotearen ziurtasuna.

20.000tik gora paziente pozik.
Etorri eta egin irribarre berriz ere.



20 urte baino gehiago zurekin.



Profesional talde handi bat zure
irribarre zaintzen.



Zure irribarre onena geure
laborategian diseinatzen dugu.

R.P.S. 123/17



bista eder
clinica dental - horts klinika

Deitu | 943 70 00 82

bista eder, 19 - bajo 20600 eibar
www.bistaeder.es